

XIII. urtea - 145. zk. 2005eko urtarrila

> **GEU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



ernesto valverde, txingurri

agustin azkarate
armentia, katedrala, harresia

josu izagirre & hasier oleaga
musikariak

betagarri

pikor antzerki taldea

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA
INTERNATIONAL

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - Apdo. 3280 - 01013 GASTEIZ

Bezeraentzako arreta telef.: 902 322 232 • E-mail: info@grupocegasa.com • www.cegasas.com

Fundación Sancho el Sabio Fundación

GEU Elkartearen ekimenez
sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:
Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe:
945 22 21 53
e-mail:
geugaste@grn.es

Zuzendaria:

estitxu breñas glz. de zarate

Aldizkari batzordea:

josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estitxu breñas eta
david alvez

Kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz

Argazkiak:

edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa:

estitxu breñas glz. de zarate, david alvez

Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:

estitxu breñas glz. de zarate

Itzulpenak:

edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri

Maketa:

patirke sanz eta david alvez

logoa:

io grafix

komikia:

iñigo sarasola

Kolaboratzaileak ale honetan:

unai gartzia, hodei bueno, elkartzen
ekimena, maite lekue, alfredo ibarra,
erlantz urtasun eta diocesanas-
mendizorrotzak ostalaritza eskola.

Publizitatea eta Banaketa:

edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila:

edurne begiristain, estitxu breñas glz. de
zarate eta maite lekue

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92


ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Euzko Jaiak



Arabako Foru Aldundia



Caja Laboral

GEU ALDIZKARIA zure

etxean jasotzeko bidea

HARPIDETZA da.

Urte osoko kuota: **18 euro.**

(telefonoz - e-mailez)

AHORIK-AHO



15-17

josu izagirre & hasier oleaga
puntako musikariak

7-10

ernesto valverde, txingurri.
athletic-en entrenatzailea



11-14

agustin azkarate:
armentia, katedrala,
harresia



GAIKA

18-19

zikloa
liburua.
joseba olalde



20-21

pikor antzerki
taldea:
zapaldu
marra



23

euskaltasunean lagun
nora blanco

HAN-HEMENKA

-iritzia (4-5)

- EBN&Euskalgintza

- Elkartzen taldea

-kaleak dio (6)

zinema

- araba bixotzian (6)

alfredo ibarra

KULTURAI SAILDIARI SO

-AGENDA (25)

-HISTORIA ZERTZELADAK (27)

euskal toponimia Beloradoko eskualdean

-ARTE TXOKOA (28-29)

iñaki ortiz de villaba. betagarri: zuzenena

-BIDAIA (30)

haizea II. Las negras (almeria)

-ZUTABEA! (31)

iluna. erlantz urtasun

-ERREZETA (31)

muxika erreak

-GEUren ekintzak (32-33)

-KOMIKIA: tink (34)

Azala ...

Ez da samurra izan Txingurrekin mintzatzeko
une bat topatzea. Entrenatzaile lanak ez dio
apenas denborarik uzten elkarizketak eskaintzeko.
Baina, azkenean GEUrako tarte txiki bat egitea
lortu zuen, eta gustura erantzun zien gure
galderei.



argazkia: © edorta sanz

~Euskalgintzak egindako balorazioa Gasteizko Udalaren EBPN planari~

→ Gasteizko Euskararen Kontseiluko Euskalgintzako kideak

Euskalgintzak gaur ohar honen bidez azken hileotan eramandako prozesuaz balorazio bat egiteko deitu zaituztegu gaur.

Hainbat puntu ditugu gaur hemen baloratzeko, alde batetik prozesua bera baloratzera esan behar da, prozesu guztian zehar izan ditugula arazoak epeekin euskalgintzatik erantzun ahal izateko.

Hasieran jarritako epearekin itsututa egon da Udala eta euskalgintza horri jarraitu ezinean ibili da.

Ez dugu izan parte hartzeko aukera larregirik. Sektorekako lan mahaian ere asti gutxi izan du jendeak bilera deialdia jaso eta bilerak prestatzeko.

Teorian izan dugu astia baina praktikan ez. Kontuan izan behar da lan hau guretzat apartekoa dela gure eguneroko zereginetatik eta udalak teknikariak izan dituela bertan lanean.

Gaur da eguna oraindik ere, Euskararen Udal Kontseilua osatzen dugun taldeok ez daukagula gure esku pasa den astean Lehendakariaren udal batzordean onartutako plana bere osotasunean.

Egindako lanaren emaitza baloratzera aipatu, batetik ekintzak beraiek baloratuta zalantza ugari ditugula beroien gainean, zergatik batzuk urte batez bakarrik garatuko diren eta ez gainontzekoetan, zein arrazoi den horretarako oinarria...

Ekintza batzuetan agertzen da dagoeneko existitzen diren partidekin burutuko direla baina ez da zehazten nondik egingo diren... honekin ez dugu pentsatu nahi partidarik ez dagoenik baina ez dakigu nondik egingo diren...

Badirudi, ikastaro batzuk antolatu eta kanpaina batzuk egitera mugatuko dela Gasteizko EBPN eta ez zen hori guk proposatzen genuena. Emaitza baloratzera esan behar da, oso urrun geratzen dela egin den ekintza zerrenda hau guk eskatutakotik.

Orohar, argipen ugari gabezia somatzen dugu honetan guztian.

Eta aurrekontuari dagokionez oso nahaspilatsua da, ez da batere argia, gurasoentzako eskoleenarekin nahastuta ageri da. Dirutza handia inbertituko dela ematen du kopuruak ikusita baina erren dagoela esan daiteke, ez baitago oso argi zertan erabiliko duten kopuru hori, kezkarria behintzat zaigu.

Eta planaren barruan lehentasunezko ikastaroak daudela ere agertzen da baina dirurik gabe zail xamarra izaten da kontu hauek aurrera eramatea.

Ekintza batzuk hasieran egitea aipatzen da baina gero ez dute jarraikortasunik izango... dena airean geratzeko arriskua dauka honek.

Kopuru bakoitzaren arrazoiketak ere ez zaigu azaldu beraz, ez dakigu diru kopuru bakoitza zertarako erabiliko den.

Ekarpenak baloratu behar baditugu esan behar dugu akats

larritzat jotzen dugula ekarpenak adosteko aukerarik ez izatea. Ekarpak egin dizkiegula proposatutako ekintzei eta epeak onartutako moduan bete ditugula, nahiz eta guk hasieratik epe luzeagoak nahiago genituen lana erraztu eta hobeto bideratu asmoz eta honen aurrean Udaletik ez zaigu erraztasunik eman.

Euskararen Udal Kontseiluan egindako bilerak oso hotzak eta formalak izan dira.

Azkenean zertarako eta benetako garaia iritsi denean ekarpenak inolako arrazoirik eman gabe paretik kentzeko, gainerako euskalgintzako kideek ere aukerarik izan gabe ekintza hauek kontrastatu eta iritzia emateko.

Egindako ekarpen asko zehazteko ziren edota maila orokorrago batekoak baina ez dira ezta kontuan ere hartu eta gure hasierako eskaria izan zen "Gasteiz euskaldundu bai, baina euskaldundu!" horretatik oso urruti geratu da dena.

Datu moduan jakin dezazuen 175 ekarpen egin dituzte bertako parte hartzaileek eta 16 pasa omen dira bakarrik udal batzordera, horietatik batzuk ez ziren onartu beraz, 8ekin geratu dira. Gu honetaz bileran enteratu ginen bertan zuzenean esan zutelako.

Zer ekarpen onartu zen eta zein ez, Udal batzordea egin ostean enteratu ginen iluntze horretan bertan geneukalako Sektore kontseiluaren bilera, eta gure uste apalean ez zaigu iruditzen asko kostako zenik lehenik eta behin zein ekarpen onartu den eta zein ez euskalgintzari adieraztea eta honen arrazoiak ere azaltzea, begiruneagatik bada ere bidezkoa iruditzen baitzaigu egindako lan eskeragaren ondoren Udalaren aldetik honako azalpenok ematea.

Gainera uste dugu euskalgintzaren aldetik zinegotziak berak esan bezala oso lan txukuna egin dela eta ez dugu uste eskertzeko modua hau denik.

Hasieratik bi premisa oinarritzat jo genituen:

Hizkuntza eskubideak bermatu behar zirela eta gizarte eragileak ere konpromisoak hartzera animatu eta hauek garatzeko laguntzak zehaztu beharko zirela eta ez dugu hau inondik inora ere bermatua ikusten, ez baitugu ikusten oso presazkoak diren kontu batzuk, BEZ esaterako inon ez baita agertzen eta honen orde bestelako bereizgarri berri batzuk aipatzen dira...

Beraz, ez dakigu oso ondo ostegun honetan Udal Plenoan zer onartuko den eta datozen 4 urteotan zein plan izango dugun zehazki. Aurrerago egin beharko dugu hausnarketa sakonago bat plana eskuarte dugunean.

Dena den aurrekoan esan bezala, Gasteizko hiritar guztiei esan nahi diegu jarraitzen dugula erabateko prestutasuna eta ilusioa izaten, baina kontuz ibili beharko garela eta zorrotz jokatu dugula egiten den guztiarekin aurrerantzean ere, onartuko denaren jarraipen estua egiten.

~Jar diezaiogun muga pobreziari!!~

❖ Elkartzen ekimena

Sarritan iruditzen zaigu gure herrian ez dagoela pobreziaren zantzurik, herrialde garatu batean bizi garela eta pobrezia beste herrialdeei dagokien fenomeno bat dela. Hau zalantzan jarri beharrean gaude. Zeinek ez du ezagutzen prekarioan lan egin eta hilabete amaierara iristeko gorriak eta bi jasaten ez dituenak? Zeinek ez du ezagutzen alargun pentsioa jaso eta bizitzeko arazoak dituenak? Edota, etxetik joan nahi eta diru nahikoa ez izanagatik gurasoen etxean geratzen den gaztea? Zeinek ez du ezagutzen langabeturik? Eta, etxebizitzarik ez duen etorkinik? Errealitate guzti hauek gure egunerokotasunean aurkitzen ditugu eta hauek dira Euskal Herrian pobreziaren zantzuak pairatzen dituzten milaka herritarren egunerokoa. Pobreziak aurpegi ugari ditu, beraz.

Gure eskubideak behin eta berriro erasotzen dituen kapitalismoarekin amaitzea beharrezkoa zaigu eta esplotazioan oinarritutako harremanak gaitutuko dituen bestelako eredu batetarantz urrats sendoak eman. Horretarako, oinarritzkoak diren eskubide sozialak aldarrikatu behar ditugu, hauen urraketa sistematikoa salatuz: etxebizitza eskubidea, diru sarrera duinak izateko eskubidea, lan duina izateko eskubidea... Baina gure ustez, eskubide hauek bermatzeko, hartu beharreko lehen neurria, Pobreziaren Muga zehaztea dela deritzogu.

Zer da zehazki Pobreziaren Muga? Pertsonen diru sarreraren kopuruaren inguruan erreferentzia bat zehaztea litzateke, bizitza maila minimo bat finkatzeko, prestazio ezberdinak kalkulatzeko garaian erabili beharrezkoa.

Nola kalkulatu da? Gure ustez, OCDEren irizpidea jarraitu behar da: herrialde bateko ondasuna pertsona guztien artean banatuz gero, ateratzen dugun batz bestekoaren erdia izango litzateke. Hainbat muga dituen metodoa da hau, izan ere, batz besteko

kopurua zehazterakoan ez baita kontuan hartzen ezkutuko ekonomia ezta diru sarrera handienak jasotzen dutenen ohiko iruzurra. Beraz, minimoen minimoaz ari gara, hauek gehituz gero, kopurua askoz altuagoa izango litzatekeelako.

Zertarako balio du Pobreziaren Muga zehazteak? Honen azpitik inor ez bizitzeko eta duintasun minimo bat ziurtatzeko pertsona orori. Era berean, pentsioak, prestazioak eta soldatak finkatzeko momentuan erabili beharreko erreferentzia litzateke.

Badakigu neurri honekin bakarrik ez dugula pobreziarekin amaituko, beharrezkoa delako ere lan baldintza duinak bermatzea eta etxebizitzaren salneurri eta alokairuen gehiegizko prezioetan eragitea. Hala ere, Pobreziaren Muga Euskal Herrian finkatzea, eskubide sozialak bermatzeko eta ezberdintasun sozialak murrizteko oinarria izan daitekeela uste dugu, sortzen den ondasuna denon artean modu orekatuago batean banatzeko aukera ematen duelako.

Elkartzen-en, Euskal Herriko Pobreziaren Muga kalkulatu egin dugu. Estatistikek jasotzen dutenaren arabera, 2001. urteko Barne Produktu Gordina 21.426 eurokoa izan zen, eta batz besteko errenta erabilgarria biztanleko 18.672 eurokoa. OCDEren irizpidea jarraituz, pobreziaren muga 9.336 eurotan kokatzen da, hau da, 778 euro hilabetearen.

Gauzak horrela, esan beharra dugu Euskal Herrian jende asko pobreziaren mugaren azpitik bizi dela: soldata minimoa kobratzen duten langileak, pentsioak jasotzen dituztenak, oinarritzko errenta kobratzen dutenak, diru sarrerak ez dituztenak... Elkartzenen erabiltzen ditugun datuen arabera, 500.000 pertsona inguru pobreziaren mugaren azpitik bizi direla baieztatu dezakegu. Pobre gehiegi, ezta? Jar diezaiogun muga pobreziari, guztion ardura da eta!!!

**Euskal Herrian
500.000 pertsona
pobreziaren
mugaren azpitik
bizi dira**

**duintasunez
bizitzeko...**

- prekariatatea?
- ETak?
- horas extras?
- S.M.I.?
- diskriminazioa?
- etxe hutsak?
- A.E.S.?
- contratos basura?
- pensiones "generoras"?

**jar diezaiogun muga
POBREZIARI!**

bizi minimoa orain!!!

778 beste euskal herrira beharrezkoa da!!!

www.elkartzen.org

Euskarazko zinema

Egun, Zazpigarren Arteaz euskaraz gozatzeko aukera gutxi eskaintzen digute ekoizleek. Hala ere, badira arrakastaz marrazki bizidunak euskaraz ekoizten dituztenak ere. Publikoari dagokionez aldiz, pelikulak euskaraz ikusteko ohitura eskasa. Zinema euskaratze bidean, ikusleriaren jarrera aldaketa abiapuntu dugu.

Fernando Marin, Udaleko langilea

1) Ez, normalean zineman ez dut ikusten ez dagoelako aukerarik, baina egotekotan ikusiko nuke. Telebistan, berriz, bai. Igandeetan emititzen dituzten pelikulak ikusi ohi ditut.

2) Diruagatik esango nuke. Haurrentzako pelikulak badaude, ume gehienek euskara dakitelako eta hauen merkatua handiagoa delako. Helduei dagokienez, ekoizleei ez zaie merkatu hori interesatzen eta horregaitik ez da euskarazko filmik ekoizten.

3) Estreinaldiak egotea. Nik uste dut, Euskal Herrian egiten den zinema euskaraz egin behar dela eta horrez gain, bestelako herrialdeetako pelikulak ere euskaratu beharko lituzketela. Gasteizen zinema asko daude eta behintzat areto bat honetara bideratu beharko zutela uste dut.



Belen Urrutxurtu, irakaslea

1) Gustatzen zait edo saiatzen naiz ikusten, baina ez dut denbora asko izaten zinemara joateko edo telebistan filmak ikusteko.

2) Normalean jendea ez doalako. Izan ere, egun itzulpenak hobeto egiten direla esango nuke baina hasiera batean nahiko penagarriak ziren eta ez ziren ondo ulertzen. Askotan ingelesetik edo gaztelaratik zuzenean itzultzen ziren eta ikusleek ez zuten euskarazko zentzurik hartzen.

3) Itzulpenak onak, zuzenak eta ulergarriak izatea. Hala izango ez balitz, behintzat azpitituluak jartzea.



Jon Gauna, teknikaria

1) Oso gutxi. Lehenengo eta behin, zineman oso aukera murrizta dagoelako, nahiz eta telebistan gero eta gehiago izan. Bestetik, itzulpenak nahiko txarrak izaten dira orokorrean esanda.


2) Ez dira errentagarriak, izan ere, erakundeek ez dute dirulaguntzarik ematen. Dena den, nire ustez euskalduna izateak ez du esan nahi halaberharrez euskarazko pelikulak ikustera joango zarenik. Beraz, publikoaren arazoa ere bada.

3) Pelikulak euskal aktore, teknikari eta langileek egitea, batez ere.



Araba bixotzian

alfredo ibarra



1935 urteko Herrandarren eta Olagibel kaleen arteko ertza, duela gutxi arte Urko liburutenda.



2005eko irudigilea:
alfredo ibarra solloa
"Gasteizen jaioa 1958an.
Delineazioa eta marrazki-pintura
ikasketak egin nituen. Bertsozale,
harrobi-futbolzalea eta puruzalea
naiz gehienbat. Kitto!"

ernesto valverde, "txingurri" apaltasuna eta lanaren eredu



ERNESTO VALVERDE PERTSONA ZUHURRA DA, ETA TITULAR HANDIETATIK IHESI, TXINGURRI BERE EZIZENAK DIOEN BEZALA, LANA BIZIMODU DUENA. VIANDAR DE LA VERAN (CÁCERES-ESPAINIA) JAIO ZEN 1964AN. BAINA BI HILABETE BAINO EZ ZITUENEAN GASTEIZA ETORRI ZEN FAMILIA. ATHLETICEKO ENTRENATZAILE DA 2003KO UDAZ GEROZTIK. 2000-2001 DENBORALDIAN ATHLETICEKO BIGARREN ENTRENATZAILE IZAN ZEN. 2002-2003 DENBORALDIAN ATHLETIC BKOA. AURRETIK, ZENBAIT TALDETAN ARITU DA, JOKALARI MODUAN: ESPAINOL, BARTZELONA, ATHLETIC, ALAVES, MALLORCA.

edurne begiristain
arg.: edorta sanz

Andoni Zubizarretak harrobiaren aldeko apustua egin nahi izan zuen Ernesto Valverde Athleticen entrenatzaile aukeratu zuenean. Baina ez hori bakarrik. Futbolearen haize berriak jotzen du, eta izen handietatik ihesi Realean arrakasta izugarria izan duen eredu baten bila joan zen Bizkaiko kluba: apaltasuna eta lana. Izan zuen Athleticen izen handiagoko entrenatzaileak fitxatzeko aukera, baina Zubizarretak Denoueix zuen buruan. Ideia horrekin Holandan eta Frantzia entrenatzaile bila aritu zen, baina bere karta gustukoena poltsikoan zuen gordeta, etxean.

Futbolari lotutako bere ibilbideaz gain, argazkigintza ikasten aritu zen Bartzelonan lau urtez, eta argazkigintzak hain zuzen harremanetan jarri zuen euskal kulturaren munduko zenbait kiderekin, bere horretan ere modu batean edo bestean murgilduz (Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Maskarada...). Bai eta uneotan bere anaia Mikel Valverderen bidez.

Ez da samurra izan Txingurrekin mintzatzeko une bat topatzea. Entrenatzaile lanak ez dio apenas denborarik uzten elkarizketak eskaintzeko. Baina, azkenean GEUko tarte txiki bat egitea lortu zuen, eta gustura erantzun zien gure galderei.



Adurtza auzoko eskolan



Alaveseko entrenamendu batean

- IAZ DENBORALDI ONA EGIN ZENUTEN ESPAINIAKO LIGAN. AURTEN, LIGA, KOPA ETA UEFA JOKATZEN ARI ZARETE. NOLA IKUSTEN DUZU TALDEA?

Txapelketa desberdinetan aritzeak eskatzen duen esfortzu fisikoaz gain, mentala ere nabaritzen du taldeak. Izan ere, hiru txapelketetan jokatzeko mentalizatu beharra dute jokalariek. Edonola ere, aurtun UEFAn jokatzeko oso pozgarria izaten ari da bai taldearentzat, baina baita zaleentzat ere.

- ZEIN DA ZURETZAT GARRANTZI HANDIAGOA DUEN TXAPELKETA? KOPA BETI IZAN DA BEREZIA ATHLETIC-eko JARRAITZAILEENTZAT; UEFA EZ DA BETI JOLASTEN ETA BADU BERE PRESTIGIOA; LIGA, LIGA DA...

Ezbairik gabe, Liga da txapelketarik preziatuena, erregulariki jokatu behar dugulako. Hori bai, UEFAn aritzeak ilusio handia egiten digula ukatzerik ez dago, eta espero dut taldea bertan maila ona emateko gai izatea.

- ATHLETICEKO ENTRENATZAILE ZARENEZ GEROZTIK, ZENBAIT JOKALARI GAZTEK DEBUTA EGIN DUTE. NORK HARRITU ZAITU GEHIEN?

Iraolak. Lehenengo mailara egokitzeke izan duen gaitasunak asko harritu nau. Normalean urte batzuk behar dira maila ona hartzeko, eta berak hasierako hamaikakoan denbora gutxi daraman arren, ederki asko moldatu da.

- ZER DA ZURETZAT ATHLETIC KLUBA? ZER ESANAHI DAUKA?

Berezia da oso. Taldearen atzean dagoen guztiak esanahi berezia du, handia da. Zelaira ateratzen garen bakoitzean Athleticen historiaren zama gainean nabaritzen dugu. Zama da, bai, baina aurrera egiteko ere oso garrantzizkoa da. Harro sentitzeko moduko taldea da.

- URTEAK EMAN DITUZU JOKALARI MODUAN. ORAIN ENTRENATZAILEA ZARA. NOLA NEURTZEN DA BIDEA BALKOITIK?

Jokalaria izatea baino askozaz zailagoa da. Izan ere, gauza onentzat zein txarrentzat neu naiz beti arduraduna eta erruduna. Oso lan nekeza da, ahitu egiten zaitu..., baina merezi du, asko gainera.



Athletic-en jokalaria



Athletic-en entrenatzaile

“ALAVES nire hiriko eta nire familiaren taldea da. Lau urtez jokatu nuen bertan. Estimatu handitan daukat”

- JOKALARI IZAN ZINENEAN, ZEIN TALDETAN ARITU ZINEN GUSTURAGO?

Talde guztietan gustura ibili naiz, eta ez nuke inola ere nire karrera ezeren truke aldatuko. Baina talde bat aukeratzekotan, Athletic aukeratu nuke. Athletic diferentea da eta.

- HORRENBESTE URTE FUTBOLAREN MUNDUAN EGOTEAK JENDE ASKO EZAGUTZEKO PARADA EMANGO ZIZUN, BAITA LAGUN ONAK EGITEKO AUKERA ERE. ZURE KARRERAN LAGUNDU DIZUN NORBAIT BEREZIKI AIPATUKO AL ZENUKE?

Jende asko ezagutu dut eta lagun asko egin ditut. Azken batean adiskidetasun hori da karrera guztiaren alderik onena. Hoberena jendea alboan izatea da. Duda barik. Izen asko aipatuko nituzke... Urrutia, Ziganda, Garitano... Bat bakarrik aipatzea ez da samurra.

- ENTRENATZAILEA ZARENEZ UNE ORO ETXETIK KANPO EGON BEHAR IZATEN DUZU, ETA IMAJINATZEKO DA FAMILIAREKIN EGOTEKO TARTE GUTXI IZANGO DUZULA. NOLA DARAMATE ETXEAN HORI GUZTIA?

Lanbide honen alderik ezkorrena horixe da. Etxeko txikiek faltan botatzen naute, eta nik haiek ere... Baina okerrera da nire familiak ere futbolaren presioa pairatu behar duela. Entrenatzaile izateak kritika guztien jomuga bilakatzen zaitu, eta familiak ere presio hori sufritzen du.

- JOKALARI ZINENEAN NOR ZEN ZURE USTEZ LIGAKO JOKALARI ONENA? ETA ORAIN NOR ESANGO ZENUKE?

Lehen Zubizarreta zen nire jokalaririk gogokoena. Zelaian egiten zuenaz gain, jokalaria moduan zuen ardura eta jarrera miresten nituen. Orain berriz, ez nuke jakingo nor aukeratu... Akaso nire taldeko jokalariren bat.

- EUSKAL HERRIAK NOIZBAIT EUROPAKO KOPA JOKATZEKO AUKERA IZANGO DUELA USTE DUZU? HEMEN DAGOEN FUTBOL MAILA IKUSITA, BIDERAGARRI IKUSTEN DUZU?

Ez dakit... Uste dut talde indartsua osatzeko aukerak egon badaudela, eta teknikoki ere ahal dela.



DI-DA

- ALAVES:

Nire hiriko taldea. Lau urtez jokatu nuen bertan. Nire familiaren taldea. Estimua handitan daukat.

- REALA:

Athletic eta Realaren arteko lehiakortasuna ederra da, eta espero dut urte askotan irautea. Oso osasuntsua delako. Derbietako giro sutsua ona da. Azken batean denok batera gaude.

- OSASUNA:

Aparteko zaleak dituen taldea. Bere zelaira jokatzera joatea gustuko dut.

- EIBAR:

Goranzko jauzi ikaragarria eman duen taldea. Meritu handiko taldea, duen aurrekontua kontuan hartuta, bereziki.

- GASTEIZ:

Bertakoak dira nire senideak. Nire etxea da.

- BILBO:

Nire etxea ere bai. Hemen bizi naiz eta gustura nago.

- HARMAILETATIK ENTZUN**DUZUN GOGORRENA:**

Ezin dut hitzekin adierazi.

- GOGOAN DUZUN PARTIDARIK ONENA:

Atzokoa (UEFAko sailkapena lortu zuen taldeak abenduaren 16an, Standard Liejari 1-7 irabazita). Behin Bernabeun 3-0 galdutakoa. Eta nire estreinaldian, Bartzelonan, hura ere galdu genuen arren.

- OPORRAK NON ETA**ZERTARAKO:**

Hemendik urrun. Aldenduta.

Ezagutzen dudak ezer eta inor ez dagoen tokian, nire familiarekin, atsedean hartzeko.

- ZER EGITEN DUZU JAI DUZUNEAN?

Deskonektatzea.

- ZORIONTASUNA:

Teoria asko dago horren inguruan. Oro har zoriontsu naizela uste dut, ez baitaukat zoriontsu ez izateko arrazoirik.

- LIBURU BAT:

Bernardo Atxagaren "Soinujolearen semea".

- FILM BAT:

Soldados de Salamina.

- CD bat:

Ruper Ordorikaren "Ez da posible".

- JANARI GUSTUKOA:

Patata tortilla.

- SUKALDARI ONA AL ZARA?

Ez, baina ahalegindu ahalegintzen naiz. Gauza berriak egitea gustuko dut, baina zailtasun handirik ez duena.

- ZERTAN ZARA TREBEA?

Etxeko lantxoetan.

- EUSKARA:

Oraindik egiteke dudana.

- TALDE LANA:


Taldearen ahalegina emaitza onak lortzea baino garrantzitsua denean.

- IRABAZTEKO GAKOA:

Ez dago. Ez daukat. Irabazi ostean agertzen da gakoa.

- AMETS BAT:

Athleticekin tituluren bat irabaztea. Eta maila pertsonalean,



ahalik eta zoriontsuen izatea.

- ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Elkar ulertzea.

- ZERGATIK "TXINGURRI"?

Clementek jarri zidan goitizen hori, Espainolan nengoenean. Oso altua ez nintzelako jarri omen zidan.

Armentia, Santa Maria Katedrala eta Gasteizko Harresiaz

unai gartzia

arg: edorta sanz

Arkeologi Katedradun AGUSTIN AZKARATEekin

SANTA MARIA KATEDRALEKO ZAHARBERRITZE LANAK, ARMENTIAKO INDUSKETAK ETA XI. MENDEKO GASTEIZKO HARRESIA; GASTEIZEN, ESKUTIK HELDUTA, BAT EGIN DUTEN ARKEOLOGIA ETA HISTORIAK SUSPERTZE HARRIGARRIA BIZI IZAN DUTE AZKEN URTEOTAN. GURE HIRIA IKERKETA ARKEOLOGIKOAN PUNTAKO ESZENATOKI IZATERA ERAMAN DUEN GERTAERA HONEN ZERGATIA ULERTZEKO, AIPATURIKO PROIEKTUEN ZUZENDARI AGUSTIN AZKARATE ARKEOLOGIAN KATEDRADUNAREKIN EGIN DUGU SOLASALDI LUZE ETA ABERASGARRIA. BERAK HURBILDUKO DIZKIGU GURE HIRI ZAHARRAREN HAINBAT PASARTE HISTORIKO, ARKEOLOGIA TRESNA EZINBESTEKOTZAT ERABILIKO DUGULARIK.



Armentia

"Armentia arabako tokirik sinbolikoena da"

2003ko abuztua eta 2004ko abendua bitartean Armentian buruturiko lanak, lehenengo hurbilketa lanak izan dira, tokiaren baloraziorako ikerketak alegia. Lan hauei, tokiaren memoria historikoa berreskuratzearen eman zaie hasiera, Armentiak Historian izandako garrantziaren berri ematearren. Agustin Azkarateren arabera, orain darabilguna, "Arabako tokirik sinbolikoena" izan daiteke.

ZER LAN MOTA BURUTZEN ARI DA ARMENTIAN?

Orain, balorazio lan bat burutzen ari gara, Armentiak Historian izan duen garrantziaren memoriaren berreskuratze bidean. Hurbilketa lan horretan, hiru helburu nagusi planteatu ditugu: lehenengoa, Armentiak Apezpikutza baten egoitza bertan izateko, zer nolako garrantzia zuen jakitea; bigarrenak, Apezpikutza izaki, Katedrala bertan zegoela jakinda, katedral hori nolakoa izan zitekeen ezagutzea eraman nahi gaitu. Azkeneko helburuak, gaur egungo eraikinaren oinarriak ezagutu nahi ditu, egungo eliza XVIII. mendean guztiz desfiguraturiko XII. mendeko tenplua baita.

Lehenengo nahia bete dugu, Mariturnin azaldutako galtzadaren arrasto eta erromatar aztarnak, Armentiak erromatar garaitik paper inportantea jokatzeko zuela erakutsi baitigute. Hirugarrenarekin beste horrenbeste egin dugu, XII. mendeko elizaren morfologia ezagutzen baitugu. Bigarrena, ordea, ondorengo hilabetetan burutu beharreko lanetarako utzi beharko dugu, orain arte ez baita katedralaren inguruko aztarnarik azaldu.

BALORAZIO LAN HORIETAN BA AL DA AURKIKUNTZA BEREZIKI AZPIMARRAGARRIRIK?

Oso berezia izan da adibidez, *sakrariaren* aurkikuntza. *Sakrariak* Aro Feudalean elizen inguruan jaiotako babes zirkuluak dira. Bertan ezin zen batere bortxakeria edo biolentziarik praktikatu. Ohiko elementuak dira Europa kontinentalagoan edo eta Katalunian, baina penintsulako bestelako tokietan ez dira azaltzen eta,



Armentiakoa izango litzateke lehenengoa. Armentiak fosa zirkular hau XI. mendekoa da eta hortaz, egungo eraikina baino zaharragoa. Hala ere, ez dago lehenagoko Katedralari dagokion esaterik, aitzinetik aipatu moduan, katedral horren arrastorik oraindik ez baita azaldu.

BADIRUDI SAKRARIAREN AURKIKUNTZAK MISTERIO HANDIAGOZ JANTZI DITUELA LANAK.

Hala da, ikertzen jarraitzeko arrazoi berri bat dugu, espero ez genuena, gainera. Lanei ez ezik, Armentiar ere sinbologia handiagoa ematen dio. *Sakraria* biolentziarik onartzen ez den eremu bat da eta, eremu hori nolabait museo bihurtuz gero, egungo sinbolo ere bilakatu daiteke: bake sinbolo bat; gure herriak behar duen bake sinbolo interesgarria. Nik esango nuke, Armentia, Arabak duen lekurik sinbolikoena dela. Euskal Herriko historian ere, beste horrenbeste gerta daiteke.

ORAINDIK EZAGUTZEN EZ DUGUN KATEDRALA EDO ETA INGURUAN AURKI ZITEZKEEN BESTELAKO ERAIKINAK TOPATZEKO INDUSKETA LANEN ZABALTZEA AURREIKUSTEN AL DA?

Bai. Lehenengo urte honetan ez dira ikerketak inondik inora amaitu eta 2005ean zehar bigarren kanpaina bati



ekingo zaio. Lehenik eta behin, zuzendari-planaren burutzeari ekingo zaio eta, honek markatuko du elizak etorkizunean izango duen itxura, hau da, egungoa mantenduko den ala originala berreskuratuko den. Bestalde, indusketak inguruko zelaira zabaltzeko asmoa dugu, nahiz eta zenbatean zehazterik oraindik ez dugu.

EGUNGO PRUDENTZIO DEUNA BASILIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Erromatar garaitik izan du Armentiak Arabako historian zer esan berezia. Iter XXXIV izenez ezagutzen dugun galtzada pasatzen zen bertatik. Badirudi, erromatar bide horrek herrixkari ekarritako garrantzia VIII eta IX. mendeetara arte luzatu egin zela.

Egun ezagutzen dugun Armentiak basilikak ez du eraikin originalarekin batere harremanik gordetzen, izena ere ezberdina duelarik. Armentia Apezpikutza baten egoitza izan zen eta hortaz, Katedrala zegoen bertan. Apezpikutzaren egoitza XI. mendean Kalagorria eramanda, Armentiakoa Kolejiata izatera pasa zen, Andres Deunaren Kolejiata.

1498an Kolejiata Gasteizko Santa Mariara ekarrita (1496an sinatu zen *bula*), tenpluak ordura arteko lehentasuna galdu egin zuen eta XVIII. mendean erortzearen zegoela heldu zen. Eraikina berreskuratu nahirik zaharberritze lanak burutu ziren mende horretan, itxura originala guztiz desfiguratuaz eta egun aurkezten duen formari jaiotza emanaz.

Katedrala

Katedralean buruturiko lan arkeologikoen inguruan airtzeko parada eman digu Agustin Azkaraterekin eginiko solasaldiak. Lan hauek, lehenik eta behin, eraikinaren bilakaera eraikitzailea ezagutzeko derrigorrezkoak suertatu dira. Agustinek argi utzi nahi izan digu arkeologoena ez dela soilik lurrazpiko lana. Bere taldeak buruturiko ikerketa garrantzitsuena suertatu da Katedralak pairatzen dituen patologia ezberdinen ezagupenerako.

Eraikin baten zaharberritzea ezin da burutu, baldin eta bere biografia ezagutzen ez bada. Katedrala gaixo baten moduan ulertu beharra dugu, zuzenki, ebakuntza-gelara ezin eraman dezakeguna. Aldez aurretik, gaixoaren historial medikoa ezagutu beharra dugu, tratamendurik egokiena zein den geroago erabaki ahal izateko.

Katedralaren eraikuntza XIII. mendean hasi arren, eraikuntza ez da soilik garai horretakoa eta, hau oso argi izanda, Azkarateren taldeak gaixoaren historial kliniko osoa burutzeari ekin zion, hau da, fase ezberdinetan egindako eraikuntza eta partehartze ezberdinak zeintzuk ziren jakiteari buru-belarri ekin zion. Lan metodologia honek, arkeologiaren arkitekturak, ez du eraikina izozturiko modelo isolatu baten gisara ikusten eta, jaio zenetik, bere bizitza osoari erreparatzen dio. Lan honen burutzearako, estratigrafia erabiltzen da, bata bestearen gainean egindako interbentzio guztiak zehatz-mehatz aztertzen direlarik.

Hala ere, ezin ahaztu dezakegu, lur azpia artxibategi bat ere badela, eta bertan egindako indusketek, hainbat informazio eskaini izan digutela. Besteak beste, Gasteizko giza aztarnarik zaharrenak. Indusketa hauei esker, badakigu erromatar garaian Landatxo-El Campillo izenez ezagutzen dugun esparruan bazela asentamendu bat, nahiz eta lortutako informazioak oso sakabanatuak diren eta nolakoa zen esaterik ez den. VIII. mendetik aurrera, gaur arte etenik gabe iraun duen asentamendua dagoela ere


badakigu lanei esker. Honen inguruan, VIII eta IX. mendeetako egurrezko etheen pilareak lurrean zuzenean ezartzeko egiten ziren poste zuloak aurkitu egin dira. Harrizko oinarriak dituzten etxeak

ez dira 1000. urtea arte azalduko.

Informazio hau osatu eta aberasteko, Santa Maria plaza bere osotasunean industen dihardu Azkarateren lan taldeak.

KATEDRALAREN HISTORIA ULERTZEKO LAU ZERTZELADA

- ✓ 1202an Gaztelako Alfontso VIII.ak, mendixkaren ipar-ekialdean, harresia zabaltzeko balio izan zuen eliza-defentsio baten eraikuntza agintzen du.
- ✓ 1256an eta aurreko proiektua aldatuta, Alfontso X.ak tenplu gotikoa altzarazten du defentsio-elizaren gainean.
- ✓ XIV. mendearen erdialdean portadak amaitzen dira eta XV. mendearen amaieratik aurrera portikoa ixten hasi.
- ✓ 1496an Kolejiataren egoitza Armentiatik Santa Mariara ekartzeko *bula* sinatzen da, praktikan 1498an burutuko dena.
- ✓ XVI. mendean eta beste interbentzio askoren artean, egurrezko gangadun sabaia kendu eta egungo harrizko gangak ezarriko dira, sabaiaren pisua nabarmen handituz.
- ✓ 1862an eta Apezpikutzaren egoitza Gasteizera ekarrita, Santa Maria Katedral moduan kontsaktatuko da.
- ✓ 1994an eta aurrezten duen egoera ahulak baldintzatua, Katedralaren itxiera gertatzen da. 1996an egungo lanak aurrera daramatzan zuzendari-planaren erredakzioari ekiten zaio.



"Duintasun urbanistikoagatik suertatzen da bereziki interesgarria XI. mendeko harresia berreskuratzea"

Katedral inguruan buruturiko

indusketek ezusteko handia ekarri zien bertan lanean ziharduten ikertzaileei. Eraikin barruan topaturiko harresiaren aztarnak, Katedralaren ipar-mendebaldean zutik mantentzen zen harresi berdinarekin ziren, hiriko harresi originalarenak alegia. Ondorengo ikerketek erakutsi egin zuten harresi original hori ez zela, uste bezala, fundazioan (1181) Nafarroako Antso Jakituna erregeak altxarazitakoa, mende bat lehenagokoa baizik.

ZUEN LANEK, HIRIKO HARRESIAREN EZAGUPENA XI. MENDERA AURRERATU DUTE.

Bai. Sorpresazko aurkikuntza izan zen gainera. Katedral barruan industen genbiltzala, kanpoan zutik zirauen harresiaren zatia, denen moduan, Antso Jakitunarena zela uste genuen. Barruan agerturiko dorre baten aztarnak ordea, kanpoan azaltzen den dorrearen oso antzekoak zirela ohartu ginen. Biek zuten eraikuntzarako teknika eta dimentsio berdina. Gure planoak osatu ostean, harresia bakarra zela ikusteko ez genuen batere dudarik izan.

Lagin ezberdinetan buruturiko estratigrafia eta C14 frogek harresia XI. mendekoa dela esan ziguten eta, honek, guztiz hankaz gora jarri zuen hiriaren historia bera.

ANTSO JAKITUNA IZAN EZ BAZEN, NORK ETA ZERGATIK JARRI ZUEN MARTXAN HONELAKO ERAIKUNTZA GARRANTZITSUA?

Hori bera da historialari eta arkeologoen etengabe gure buruari egiten diogun galdera. Elite lokal bat, botere zentral sendo bat... Guztiz galdurik gaude, hala gertatzen baita arkeologiak espero ez ditugun datuak eskaintzen dizkigunean. Egia da, harresia Armentia *sakrariaren* garai berekoa dela. Zerbait gertatzen ari da tarte historiko honetan Euskal Herrian, zehazki Araban, honelako proiektu inportanteak aurrera eramateko. Nork, zergatik egiten ditu? Topaketak, kongresuak, eztabaidak beharko ditugu galdera horiei erantzuna emateko, mementoz ez baitugu. Eta



"frogek harresia XI. mendekoa dela esan ziguten eta honek guztiz hankaz gora jarri zuen hiriaren historia bera"

erantzun zehatzik ez den bitartean, arduratsuak izan behar dugu eta batere oinarririk gabeko interpretaziorik ez dugu egin behar. Ikerketek aurrera segitu behar dute.

MINTZAGAI DUGUN HARRESIAK ZUTIK DIRAU HAINBAT TOKITAN ETA BERRIRO HIRITARTU EDO BERRESKURATU EGIN NAHI DA.

Jendeak hainbat urte egin ditu harresiei bizkarra emanda eta honelako elementua berriro hirian integratzea oso garrantzitsua da. Baina elementu honen berreskuratzea ezin da era isolatuan egin. Harresian edo eta Katedralean pentsatzen ari garela, ezin ditugu alde zaharreko biztanleak ahaztu; euren segurtasuna, ura, argia, bizi-baldintzak etab. Hirigune zaharra osoki, integralki ulertu beharra dago. Horregatik, harresiaren berreskuratzea ez da historia eta ondare arrazoi hutsetan oinarritu behar. Harresiaren errehabilitazioa gure memoriaren

berreskuratzea da bai, baina harresi inguruak parkez edo pasealekuz jantziz gero, erabiltzeko tokia ere bada. Duintasun urbanistikoagatik suertatzen da bereziki interesgarria harresia berriro gurera ekartzea, euren bizi-maila hobetuko baitu.

BAINA BERRESKURATZE HORREK DESOREKAK SOR DITZAKE EGUNGO BIZIMOLDEAREKIN. HEDEGILE ETA ESKORIATZA-EZKIBEL ARTEKO TARTEAN ADIBIDEZ, HAINBAT BIZILAGUN KEXU DIRA.

Lehenik eta behin, erabakiak jendearekin batera hartu behar dira, eurekin kontaktu zuzena izan behar da, gauzak ondo azaldu behar zaizkiolarik. Hiri honetan, goitik behera hartutako hainbat erabaki "despotismo ilustratuaren" adibide ezin hobea dira eta, honela ezin dira gauzak egin. Jendearen konplizitatea, partehartzea, beraz, ezinbestekoak dira eta ezin dugu harresia inoren fetitxe pertsonal bihurtu.

HASIER OLEAGA & IOSU IZAGIRRE, gaurko puntako musikari gasteiztarrak

GAZTEAK

IZAN ARREN IBILBIDE

MUSIKAL ETA PROFESIONAL LUZEA DUTE IOSU IZAGIRRE ETA HASIER OLEAGA MUSIKARIEK. HAINBAT TALDETAN ELKARREKIN ARITU DIRA ETA BESTE LAGUNEKIN BATERA GAUZATURIKO PROIEKTU PROPIOEK (ORTOPHONK EDOTA SANT PAU 44) EUREN JARDUNBIDEAREN BERRI ZABALDU DUTE EUSKAL HERRIKO NAHIZ KANPOKO HAINBAT LEKUTAN, BAITA IÑAKI SALVADOR, TERESA ZABALZA EDOTA MIKEL URDANGARINEKIN BATERA ARITZEAK ERE. EGUN GARIREN TALDEKIDE DIRA BI HAUEK. HALERE MUSIKAREKIKO DUTEN INTERESAK HARATAGO DARAMA ETORKIZUN HANDIKO BI MUSIKARI HAUEK JARDUERA.

josune velez de mendizabal

arg: david gotxikoa

"NNDIK NORAKOAK".

Gasteiz, 1974. Ikasketak: O.H.O Ikasbidean, irudi eta soinua Mendizabala institutuan, eta musika Gasteizko Kontserbatorioan, Udal Musika Eskolan, Terrassako kontserbatorioan eta Zaramagako herri musika eskolan.

"Kontrabaxua ikasteko kontserbatoriora bueltatu nintzen. 5 urte eman nituen. Utzi nuen berriro Bartzelonan nengoela. Aspergarria zen. Ematen du LOGSEK ez duela arazo hori konpondu. Kontserbatorioko ikasketak konbinatzen nituen Radio Vitoria-ko lanarekin eta hainbat talderekin. Orain jarraitzen dut ikasten nire kontu eta 5 edo 6 talde desberdinetan. Batekin ez du ematen, je, je... Zorionez gustuko dut egiten dudana. Lan gehiena Gari eta Iñaki Salvadorrekin da, baina noizean behin Sant Pau edo Teresa Zabalzarekin zer edo zer egiten dugu. Bilatu Teresa Zabalzaren diskoa, "Euria", eta erosi. Egiozu opari bat zure buruari!, edo lagun bati... Musika zuzenean grabatuta % 100ean, tranparik gabe!


NOIZ ETA NOLA HASI ZINETEN MUSIKAN? ZUEK EGINIKO AUKERA IZAN ZEN EDOTA GURASOENA?

Hasier Oleaga: Zortzi urterekin hasi nintzen musika klaseak jasotzen, gurasoek bultzatuta. Etxean piano bat erosi zuten, nire arreba jotzen baitzuen. Hortaz, pianoari etekina ateratzeko, ni neu ere bidali ninduten piano klaseetara. Gainontzeko denbora libreka kalean jolasten ematen nuen. Musika eta bion arteko erlazioaren lehenengo kapitulua amaitzeaz zegoen. Alde batetik, klaseetan ez nuen jasotzen behar nuen motibazioa, eta nire interesak musikatik aldenduz joan ziren. Etxean sekulako drama izan zen musika utzi behar nuela esan nuenean. Amak honela esan zidan orduan: musikara bueltatuko nintzela etorkizunean, halako iragarpena eginez. Nire bizitza horren inguruan ikusten baitzuen. Eta hara!! Nolakoak diren amak!! Hamalau urte nituela hasi nintzen berriz ere musikarekin jolasten, klaseko lagunekin osatu genuenean taldea, alegia. Lagunen artean handiena nintzenez, baterian eseri behar nintzela erabaki genuen. Berehala jaso nuen amaren laguntza; bere ustetan musika oso gomendagarria zen niretzat, kaletik eta bere arriskuetatik aldentzen baininduen, eta beste batzuetan murgildu... Beraz, hor hasi nintzen berriz ere musikan. Nire lagunekin ondo pasatzeko eta gustatzen zitzaigun musika jotzeko.

Iosu Izagirre: Nire gurasoek kontserbatoriora bidali ninduten, 8 urte nituela, baina utzi nuen bigarren mailan. Aspergarria zen-eta.

ZERK ERAKARRI ZINTUZTEN MUSIKATIK?

H.O: Lehendabizi, aipatu dudana bezala, lagunekin partekatzea, eta komunikatzea zen nire nahia, ondo pasatzea azken finean. Musika egitea dibertigarria zen, eta Gaztetxean ikusten genituen taldeek bezala egin nahi genuen. Gero, urte batzuk geroago, heldu zen musika. Urte batzuk geroago bihotzeraino heldu zen zerbait. Entzundako zerbait, sentsazioren bat edo, soinua bat, memento perfektu bat, magia... Zerbait hori heldu eta mundu perfektu horren bila hasi nintzen. Magia hori kontrolatu nahi nuen. Mementoa kontrolpean mantentzen duen boterea, kontzientzia lantzen duen boterea, historia kontatzen zaudenean. Magia/botere hori erabiltzen ikasten hasi nintzen. Memento horretan musikarekin nuen erlazioa zeharo aldatu zen. Bidean ate berri bat zabaldu zitzaidan.



Iosu Izagirre, baxujolea

I.E: 15 urterekin Reggae asko entzuten nuen eta baxua oso erakargarria zitzaidan. Nire lehenengo irakasleak, Txubio Fz de Jauregik, esnatu zuen musikarekiko nire jakinmina. Lehenengo urratsak musika munduan bere laguntzarekin oso errazak izan ziren. Oso irakasle ona izan zen niretzat.

LEHENENGO KONTZERTUA NOIZ ETA NON? NOLA BIZI IZAN ZENUTEN?

H.O: Klaseko lagunekin osatutako taldearekin izan zen egindako lehen kontzertua. "Ez Zak Etsi" zen taldearen izena. Busturian (Bizkaian) izan zen emanaldia 1994an gutxi gorabehera. Taldeko lagun baten herrian. Urduritasun handiz bizitako unea izan zen. Kriston esperientzia. Orain, gogoratzerakoan, flipatzen dut izandako adorea. Apenas jotzen genituen gure instrumentuak. Ez genekien ezer -nire aldetik gauza ez da asko aldatu, berdintsu jarraitzen dut- eta hor ginen kontzertu bat ematen. Harrigarria benetan!

I.E: 16 urterekin, Ska talde batekin izan zen. Little feet & the prenats zuen izena. Galipó tabernan (gaur Logia dena). Jendea gainezka zegoen baina ez nengoen urduri. Geroago izan naiz urduri. Askotan. Pasa den asteko kontzertu batean, adibidez.

NOLA EZAGUTU ZENUTEN ELKAR?

H.O: In-Albis taldean ari nintzen garai hartan. Iosu, In-Albis taldearen baxujolearen irakaslea zen, eta taldearekin egindako maketaren bat eraman zuen behin Victorrek (In-Albisen baxujolea) klasera. Iosu lokaletik pasatzen zen noizean behin, eta bertan ezagutu genuen elkar. Geroxeago heldu zen Boogaloos-en esperientzia, eta bertan hasi ginen lanean proiektu berean.

I.E: Lehengo zinta batean entzun nuen. Bere taldeko, In Albis taldeko saio bat zen. Eta bateria ondo jotzen zuen, ja, ja... Gero Artegune lokaletan eta Boogaloos taldean eta Bartzelonan eta errepidean... ez dakit. Oraindik ari gara elkar ezagutzen. Galdera hau ez al da pittin arrosa?

ORAIN ARTE PARTE HARTU DUZUEN TALDE EZBERDINETAN TALDEKIDEAK IZAN ZARETE. LAGUNTZEN AL DU HORREK EGITASMO BAT AUERRERA ATERATZEKO ORDUAN?

H.O: Gauza da "sukaldean" sartzen zarenean lana argi eta garbi bete behar dela. Gure kasuan, sekzio erritmiko bezala, musikaren "eraikuntzaren" zoria senda josi behar dugu, hori da gure lana, eta horretarako Iosu bezalako laguna, sukalde kidea gisa izateak, gauzak errazten ditu piloa. Komunean ditugun kilometroak erabakigarriak dira "elkarrekin"

Musikari eskainitako bizitza

joateko. Elkarren arteko ezagutzak ematen duen segurtasuna balio handiko gauza da mundu honetan, eta zentzu horretan zorte handia izan dugu losuk eta biok elkarren artean ezagutzearekin.

I.E: Ados nago eta egia da elkarren artean ezagutzeak asko laguntzen duela.

ZUEN PROIEKTUEN (SANT PAU 44, ORTOPHONK) ARRAKASTAREN BALORAZIOA.

H.O: Zorte handia da gustuko duzuna egin ahal izatea, eta egiten duzun hori, norbaiti heltzea, sekulako karanbola, loteria, ez dakit zer... Bakarrik ditugun aukerengatik, musika zuzenean jo ahal izatea, edota grabatzea. Egiten duguna kaleratzeko aukera, eta jendearengana heltzeko posibilitatea, zorte handia da. Eta hori da hasteko ulertu behar duguna. Horrek dakarren erantzukizuna onartu, bigarrena; eta lanari ekitea, ahaztu gabe musika egitera bultzatu gintuen lehenengo gauza zein den, musikarekin jolasten disfrutatzea, alegia.

I.E: Oso ondo. Orain arte egitasmo pertsonal bakoitza ikasteko gogotik sortu da eta denborarekin fruituak eman dituztela ikusi egin da. Horrek poztasuna ematen dizu.

ZUEN PROIEKTU PROPIOEZ GAIN, IÑAKI SALVADOR, GARI, BAR PUERTO BEZALAKO TALDE ETA IZEN EZAGUNEKIN JO IZAN DUZUE. ZER-NOLAKO GOGOETA EGITEN DUZUE?

H.O: Egia esan, musikan sartzerakoan ez duzu beste edozertan pentsatzen. Lehen azaldu dudana bezala, zorte handia gurea.

I.E: Batera izan da. Nik ez daukat iritzi bat. Oraindik ez da pasatu denbora gehiegi hori jakiteko.

GARI DISKO BERRIAREKIN BUELTATU DA ETA BERAREKIN BATERA ZUEK...

H.O: Zorte handia da lagunekin lan egitea, eta kasu honetan, ondo eramaten ditugu "enpresaren" kontuak, argi eramatekoak direnak. Horretaz gain, musikalki asko ikasi dut proiektu honetan, gainera zuzenean jotzeko aukera ugari ditut, azken finean, hau nire lanbidea da, eta lana izatea pozik egoteko gauza da. Diskoaren grabazioa oso lasaia izan zen niretzat. Zuzenean grabatuta dago, denok batera, hori dela eta, elkarrekin izan ginen musika grabatzen, eta horrek laguntzen du talde izpiritua garatzen, talde soinua lortzeko ezinbestekoa.

I.E: Bai, horrela da, baina dena den oraindik asko ikasi beharra dago.

HORTAZ, ZUEN IBILBIDE MUSIKALAREN ZEIN ETAPATAN KOKATZEN DUZUE ZUEN BURUA?

H.O: Orain bizi dugun garaian saiatsen naiz kokatzen neure burua. Askotan iraganeko esperientzietan geratzen banaiz, batzuetan nahastua edota itsatsita geratzen naiz. Etorkizunari lotuta sortzen diren zalantzetan, bestetan. "Benetan dugun gauza bakarra den orainera" iristerakoan lasaitasuna aurkitzen dut. Hori pare bat alditan gertatu da soilik...

I.E: Ez dakit zer esan, ez baitut honen inguruan hausnarketarik egin orain arte...

ESTILO MUSIKALEZ MINTZATUZ GERO ZEIN DA ZUEN AUKERA?

H.O: Interesgarria iruditzen zait zerbait gehiago ematen duen musika. "Zerbait gehiago" horrekin esan nahi dut, zerbait berria. Musikan dena asmatuta dago, hortaz zerbait berria

egitea, zentzu horretan, ezinezkoa da. Musika nire gustukoa izan dadin, behar duen berritasun hori zertan datzan? Benetako zerbait izatea. Originala edota interpretatzailearen ahots pertsonala islatzea, hori zerbait berria litzatekeelarik. Autentikoa, esentziaren bila, aurretik diseinatutako halako patroietatik kanpo dagoena, edo jarrera hori duena, ze esan behar dut, horietatik kanpo mantentzea zaila-ezinezkoa-utopia dela. Bihotzetik irteten den soinua heltzen zait benetan. Eta ez bakarrik heldu, baizik eta betirako barnean eramaten duzu. Nik ez dakit zelan den nire estiloa, hori zuek esan beharko zenukete. Nik jotzen dut naizena eta Ni naiz jotzen dudana.

I.E: Estiloak niretzat ez dauka garrantzi askorik, jarrerak aldez, bai. Musikarekin, "mentalitate irekia" da jarrerarik onena niretzat.

ETORKIZUNERAKO PROIEKTUAK?

H.O: Mikel Laboarekin grabatu berri ditut kantu pare bat, datorren urtean kaleratuko den bere disko berrian. Horretaz aparte, datorren Donostiako Jazzaldian proiektu interesgarri batean parte hartzeko aukera sortu zait. Euskal Herriko musikariekin osatutako noneto batean hain zuzen ere. "The Heckler" en diskoa kaleratuko da, eta horren aurkezpenak egingo ditugu. Bestetik, nagoen proiektuekin aurrera jarraitzea.


I.E: 14. Zorte txarra ematen du etorkizuneko proiektuei buruz hitz egiteak, ja, ja.

ZEIN DA ZUEN AMETSA?

H.O: Amesten jarraitzea posible izatea, eta gure ametsak bizitzen jarraitzea.

I.E: Amets egiten jarraitu.

Hasier Oleaga, bateriajolea



79-01-13, Bilbo. Batxilergoa eta U.B.I Olabide Ikastolan, eta musika ikasketak Bartzelonako "Taller de Musics" en. Gaur egun Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, ikasten ari da.

"Nik, nire aldetik, bizitza bikoitza edota hirukoitza daramat. Alde batetik, Musikenen ari naiz ikasle, eta bestalde "Pablo Sarasate", Iruñeko Goi Mailako Ikastegian irakasle. Gauza bera ikuspegi desberdinetatik ikusteko aukera daukat. Musikari bezala zenbait lanetan ari naiz: kaleratu berri diren bi diskotan parte hartu dut, Gari-ren "O-tik" eta Teresa Zabalza-ren "Euria", alegia. Horien zuzeneko aurkezpenetan egoten naiz. Horretaz aparte, Iñaki Salvadorrekin zenbait proiektutan nago. Hirukotea eta "Canciones" deitzen den laukote bat. Azaroan Victor De Diegoren laukotearekin ibili nintzen Euskal Herriko kontzertu batzuk egiten. Gabriel Gulian eta "Barraka Selvarekin" ere jotzen dut. Bestalde, Bartzelonan ditudan lagun batzuekin pasadan udan grabatutako diskoa datorren urtean kaleratuko da, Fresh Sound New Talent-ekin, "The Heckler" deitzen da. Sant Pau 44 egitasmoarekin jarraitzen dugu, eta Alejandro Mingot Trio taldearekin jarraitasun bat izaten ari gara, zuzenean jotzeko aukera anitz izaten baititugu, Donostiako Branka Jatetxean hain zuzen ere. Horretaz guztiaz aparte, bizitza normala daramat..."

"ZIKLOA" JOSEBA OLALDEren

argazki-liburua

Joseba Olalde Azkorreta

Gasteizen jaioa 1959ko ekainean. Ingenieritza ikasketak utzi eta Londresera joan zen urtebeterako. Handik Hego Amerikara joan eta Mexikotik Perura bitarteko herrialdeetan barna ibili zen. Londresa itzuli, beste hiru urte eman han eta argazkigintzari ekin zion. Autodidaktatzat zuen bere burua. 1988az geroztik prentsako argazkilari profesional gisa egingo du lan, baita disketxe, argitalpen, publizitate eta ikus-entzunezkoetan ere. Hainbat sari jaso zituen argazkigintzan. Banakako eta talde erakusketak egin zituen. Azken boladan bere kontura aritu zen argazkilari. 2004ko abuztu amaieran agur esan zigun.

Èra zirkularrean egiten du aurrera denborak, berriz itzultzeko joaten diren elurren artean. Lur landu hori, gertakari biribila bera.

Ibiltari goiztiarra, egunari ordu guztiak hartzeko, zeharragiz lehen elurteetan, zugandik jaso ditugu. Joseba, udazkeneko eguzkiaren distira gorrikararen irudiak.

Kolore hori samurrak eta landare urdinak, haizearen itzal. Emeki-emeki berregin dituzu xendra geometriko, ordenatu horiek. Iraila ahaleginez eta adiskidetasunez beteko duten jorنالarien zain.


Irri txuri partekatuak haienak, mahats-bilketaren zurrumurru luzean.

Èta poza, mahats berria ikusteak ematen duena, Arabako lur gorri herdoilduek ematen duten ardo oparoa.

Èta urria sotoetako argiluntasun zabaletan emana. Hain baitzara ederbera, dohain noble bezain antzinakoa, adi-adi jarraitu diezu dentsitate formalen erritmo mugikorrei eta kolore aldaketei, orriz orri jaso baitituzu 50 osatu arte, zure abentura estetikoaren testigantza emateko, hain hurbileko eta hain baliagarri-zaizkizun lur horien destinuaren fede emateko. Jakin ezazu asko garela zure ahalegina eskertzen dugunak eta zure asmo ederrarekin poz hartzen dugunak.

Eskerrik asko, Joseba

NESTOR BASTERRETXEA, 2004KO MAIATZA



*Mendi beltzerantz lainotsu
Zerua beltz, ilun, itsu
Zuri almandrondo, zuriaren zuri
Lurreko izar argitsu
Negua (1)*





*Bi ahizpa gara, bi buru
eguzkiaren aiduru
gure fruitua eroriko da
irri egiten badugu
Almendrak (4)*

ARABERA KULTUR
TALDEA-2004ko urria
ARGAZKIAK eta
DISEINUA:
JOSEBA OLALDE
BERTSOAK:
JON MAIA (1/16)
UNAI ITURRIAGA (17/34)
IGOR ELORTZA (35/50)

Ziklo batek biestea
dakar ostantzean
udaberri berriak
neguen atzean
begiez jaso duzun
instant bakoitzean
utzi duzun hazia
zutaz oroitzean
lore ernatuko da
gure bihotzean
eskerrik asko, Joseba

AIKA



Gaztigatua, ageri arren
Azal lehor zimurrezko
Nire odola zurrupatzen dabil
Hamaika eder ustezko
Azala (12)

Nola ume baten bilo
aratza ez dagoen lo,
Aihena ere ernatuz doa
korapiloz korapilo
Kiribila (17)




Mahats garau borobil,
mahats garau lodi
Gure bizigarri da
zure negar hori
Ihintza (32)

Zapaltzen ari ta ari
ura atera mahatsari
ta bihurtu da edari
Ardo zaindu dezan ahoa
itxi zaio kupelari
Zabaltzean, gauden adi!
Umoretsu ta jostari
hasiko zaigu kantari
Upa (43)




Euria, haize nahasiak,
Hotz eta bero biziak...
Ezagutzeko dituzu oraindik
Naturaren gutiziak
Embero (23)



Beti astun bakarka
jasotako zama
Samurragoa da bik
egindako lana
Gora (35)

Lotan zaude, lurra, izu
Dena zuriz jantzi zaizu
Esnatzean, badakizu
berriz margotu egizu
Lehenengo elurtea (50)



PIKOR TALDEA "Zapaldu gazteen eta drogen ingurua"

IAZKO URTARRILAREN 8AN PIKOR ANTZERKI TALDE ARABARRAK "ZAPALDU MARRA" OBRA AURKEZTU ZUEN. ARDATZ, GAZTEEK DROGEKIN DUTEN HARREMANA, BAITA HAUEN ZALANTZAK, DESIOAK ETA KEZKAK ERE. DEN- DENA, MORALKERIA ETA KUTSU PATERNALISTA ALBORATUZ ETA EGUNGO GIZARTE KONTSUMISTAREN MENDEKOTASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA SAKONA EGINEZ. HONELA, OSAGAI HAUEK GUZTIAK BATUZ, IKUSKIZUN AUSARTA, DIBERTIGARRIA ETA ZUZENA ATONDU DU TALDE ARABARRAK, EZ BAKARRIK GAZTEAK GOZARAZTEKO, BAITA NAGUSIAK ERE. IZAN ERE, ARRAKASTATSUA SUERTATU DA OSO EUSKAL HERRIKO TXOKO ANITZETAN.

Arabako antzerkigintzak bizirik dirau. Horrela adierazten du Pikor talde arabarra Euskal Herritik barrena antzezten ari den "Zapaldu marra" ikuskizunak eta honek sortu duen kritika onak. Antzerki taldeko zuzendaria Miguel Olmedak esan bezala, "publikoaren erantzuna oso ona izan da, ez bakarrik gazteen aurrean, baita politikari, irakasle, teknikari eta gurasoen artean ere". Erruduna, Pikor taldeak gaiaren inguruan egin duen tratamendua da. Hau da, "obran modu orokorrean hitz egiten da gazteei eta hauek drogekin duten harremanei buruz, baina ez da moralkeriarik ezta tonu paternalistik ere erabiltzen. Aitzitik, gazteak helduak bezala tratatzen ditugu eta hauei bideratutako konplizitate-keinu asko dago", azaldu du Miguelek.

Legezko eta legez kanpoko drogen arteko desberdintasunak zalantzan jartzen dira obran; "legez kanpoko drogak baino arriskutsuagoak diren legezko droga asko daude, hauek mendekotasun handia sortzen baitute eta ez dira arazotzat jotzen, esaterako, tabakoa, jokia, sexua edo kontsumismoa", dio Miguelek. Beraz, "bizi garen

gizarte kapitalista hau menpekoen fabrika bat dela planteatzen dugu ikuskizunean", gaineratu du.

Honekin batera, gazteen zalantzak, fantasiak eta gabeziak eta sexuarekin eta drogekin duten harremana plazaratzen dira, betiere, beraiei zuzendutako hizkuntza erabiliz. "Gure helburua 14 eta 26 urte bitarteko gazteei hitz egitea da, drogen inguruan dagoen informazio eza salatuz eta kontsumo arduratsua defendatuz", diosku zuzendariak.

Ideien jatorria

Drogen gaia polemikoa da oso, hori dela eta, Pikor taldeari interesgarria iruditu zitzaion antzerkiaren bidez auzia jorratzea, "antzerkia horren inguruan argi eta garbi hitz egiteko bide aproposa zelakoan geundelako", argitu du Miguelek. Antzezlanaren egiteko ideien abiapuntua arabarrek, Hiesaren Aurkako Batzordearen enkarguz, sexua eta Hiesari buruz egindako obran kokatzen da. Horrekin batera, Gizarte Ongizaterako zein Gazte Sailer teknikariak ere gaia aurreiritzik gabe jorratzeko iradokizuna zabaldu zioten taldeari.

Gauzak horrela, Peru C. Saban autoreak, Miguelen laguntzaz, obraren testuak idazteari ekin

zion. Ondoren, Iñaki Rikarte gasteiztarra, Jon Koldo Vazquez, Iraitz Lizarraga eta Esti Villa aktore gazteak aukeratu zituzten "Zapaldu marra" antzezteko. "Jende gaztea aukeratu genuen publikoa identifikatuta senti dadin, betiere formakuntza sendoa zuten antzezle profesionalak eta elebidunak aukeratuz".

Euskal Herrian barrena

2004 urte hasieran ikuskizuna Aldabe gizarte-etxean estreinatu zuenetik, Euskal Herriko herri askotara egin du bisita Pikor taldeak, Bilbo, Donostia, Iruñea, Barakaldo, Zornotza, Durango edo Amurrio kasu. "Interes handia sortarazi du obrak eta lan dibertigarria eta ona delako zurrumurrua zabaldu da gazte, guraso eta pedagogoen artean", adierazi du Miguelek.

Gasteizen obra berriro ere ikusteko aukera izango dugu. Ikastetxe publiko zein pribatuetakoa ikasle askok hilaren 24 eta 25ean izango dute parada. Publiko orokorrak, berriz, Beñat Etxepare antzokian otsailaren 1etik aurrera. Euskarazko zein gaztelerazko paseak egingo dira.



marra" antzezlanaruko aurreiritziak zapalduz

saioa fdz de arangiz
argazkiak: pikor eta edorta sanz

IÑAKI RIKARTE, AKTOREA



ORAIN DELA URTE T'ERDI IRITSI ZEN IÑAKI AKTORE GASTEIZTARRA PIKOR ANTZERKI TALDERA, "ZAPALDU MARRA" ANTZELANEAN PARTE HARTZEKO ASMOZ. NOLANAHI ERE, EZ DA EGIN DUEN LAN BAKARRA, ESKARMENTU HANDIKO AKTOREA BAITUGU.

-NOLA HASI ZINEN ANTZERKIGINTZAN?

Txikitan hasi nintzen antzerkigintzan, ikastolako 8. mailan. Izan ere, pare bat saialdi egin nituen Gasteizko eskola desberdinetan eta azkenik, UBI amaitutakoan,

antzerkian jarraitzeko erabakia hartu eta Madrileko RESAD eskolara abiatu nintzen, 4-5 urtez. El gato negro taldea eratu genuen bertan eta 4 obra ekoiztu genituen. Ondoren, Pikor taldera etorri nintzen.

-ZEINTZUK DIRA ZURE ETORKIZUNEKO HELBURUAK?

Duela gutxi Manuel Rivas idazlearen "La lengua de las mariposas" ipuinean oinarritutako antzezlan zuzendu nuen; Elorrioren igaro den urrian estreinatu zena eta urtariletik aurrera aurkeztuko duguna. Horrez gain, egunotan bestelako obrak idazten ari naiz, Pikor taldearekin lan egiten dudana bitartean.

-ZEIN DA ZURE AMETSA?

Antzerkiarekin jarraitzea eta honetaz bizi ahal izatea. Halarik ere, mementoz antzerkian gustura nabil baina ez dakit zer egingo dudana etorkizunean. Antzerkiak sentitzen ditudan gauza asko adierazteko aukera ematen dit, baita proiektuei forma emateko ere.



miguel olmeda, zuzendaria

JAIOA: 1959ko Azaroaren 13an Madrilen, Valentzian hazi eta orain dela 23 urte Araban bizi da.

IKASKETAK: Ekonomi-zientziak ikasi, baina betidanik antzerkian jardun du, 1982 urtetik. Autodidakta lez definitzen du bere burua.

IBILBIDEA: Arabako Bekereke, Gipuzkoako Legaleón eta Granadako Lavi e Bel antzerki taldeetan parte hartu du, besteak beste, aktore zein zuzendari. Egun Pikor taldeko zuzendaria da.

MAISUAK: Eugenio Barba eta Jill Greenhalgh zuzendariak eta Miguel Garrido klowna.

PIKOR TALDEAREN IBILBIDEA

Miguel Olmedak eta Anna Rita Fiaschetti italiarrak eratu zuten Pikor antzerki taldea 1989 urtean, kaleko zein aretoko ikuskizunak egiteko xedeari helduz. Geroztik, makina bat antzezlan aurkeztu dituzte; batzuk gorputz-mintzairaren ikerketari bideratuak, beste batzuk, ordea, komikotasuna bilatzera zuzenduak. Guztiek ezaugarri komun batekin, gizartearen kritika eta hausnarketa suspertzea, alegia. "Azúcar y Vinagre", "Golpe de mano" edo "Ikutuz Ikutu" dira aretoko ikuskizunen adibideak. "Estofado de toro", "La Funerala", edo "Al fondo a la derecha" kalean egindakoak.

Etorkizunari begira, kaleko lan berria prestatzen ari dira datorren urterako. Honek bi abiapuntu nagusi izango ditu; batetik, Leonardo Da Vinci sukaldari bezala eta sabelkeria bekatu-nagusi gisa.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

GASTEIZKO BATZOKIAK



ABENDAÑO

Enrique Eguren, 5-7
Tfnoa. 945242852
945220715 (jantokia)

ERDIALDEA

Santa Barbara pza. z/g
Tfnoa. 945203312
945280997 (jantokia)

LAKUA

Biltzar Nagusien k, 54
Tfnoa. 945175651
945176406 (jantokia)

ZARAMAGA

Gasteiz kalea, 18
Tfnoa. 945288068

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege alea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta

Go.xotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Iratiren

BONARDI "AIRE"
armazoiak

orain

60€ -tan
bakarrik

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza horiek 05/1/7tik 05/2/28ra arte izango dira indarrean




KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



NESKA ARDURATSU, INDEPENDIENTE ETA LANGILEA DA 24 URTEKO NORA. HORREN ADIERAZLE DUGU, BERE UNIBERTSITATEKO IKASKETEI HASIERA EMAN ZIENETIK ETXETIK KANPO BIZI IZANA. PUBLIZITATEA EGIN OSTEAN, BARTZELONARA ABIATU ZEN BERE IKASKETAK ZABALDU NAHIAN ETA JADA BI URTE IGARO DITU BERTAN. EGUN, HIRIBURUKO PUBLIZITATE ENPRESA BATEAN DIHARDU LANEAN ETA MEMENTOZ HORRELA JARRAITZEA ERABAKI DU. ALAIA ETA NORTASUN HANDIKOA, MUSIKA ETA ZINEMA DITU GUSTUKO. BIDAIAZTEA ERE PASIOA DA NORARENTZAT.



NORA BLANCO AMENABAR

DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Txokolatea.

ETA BERTUTEA?

Jendeari entzuten badakidala, baita oso detailezalea naizela ere.

ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Bizitzan ondo ibiltzea.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Sasijakintsuek.

GEU ELKARTEA ETA ALDIZKARIAREN BERRIRIK BAI?

Bai.

EGUNKARI BAT?

Hemen Bartzelonan El Pais irakurri ohi dut.

TELEBISTA SAIO BAT?

"Aquí no hay quien viva" gustuko dut.

FILMIK GUSTUKOENA?

Woody Allen-en edozein.

JAKI GOZOREN BAT?

Pasta.

FOBIARIK, BELDURRIK?

Bakardadea.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Oporretan hondartza eta kultura nahastea gustatzen zait, atsedeen hartzeko eta gauza berriak ikusteko.

ETA NORA EZ ZINATEKE JOANGO?

Edozein lekutara joango nintzateke.

LIBURU BAT?

Aldous Huxley-ren "Un mundo feliz".

KOLORE BAT?

Berdea.

MUSIKA GUSTUKOENA?

Portishead taldea atsegin dut oso.

GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?

Begiak akaso.

ZER DA GASTEIZEK DUEN ONENA?

Orain Bartzelonan bizi naizela, nire lagunak.

EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

Nahi izanez gero bai.

AMETS BAT?

Etxe bat erosi ahal izatea!

AMESGAIZTO BAT?

Maite ditudanak galtzea.

izan zaitez korrika laguntzailea

14.
korrika
laguntzailea

aek

Martxoaren 10etik 20ra
ORREAGA-BILBO'05

Txartel honen jabea korrika laguntzailea da

Euskal Herria euskalduntzen

ILAZKI PEREZ ARRUABARRENA



000000000000000000



Eskuratu beherapenak
Euskal Herriko 300 komertziotan,
12 euroren truke.

Euskal Herria euskalduntzen



ORREAGA-BILBO 2005
MARTXOAREN 10etik 20ra

aek

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

URTARRILA. AGENDA

AMODIOZKO GUTUNEN XIII. BERRIGARA LEHIAKETA

urtarrilak 7

Lanak (orijinala eta hiru kopia) eta egilearen datuak dituen kartazala, handiagoa izango den beste batera sartuta, honako helbide honetara bidali beharko dira:

Amodiozko Gutunen XIII.
Berrigara Lehiaketa Jardun
Elkartea, Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara
kulturajardun@topagunea.com
Antolatzailea: Jardun Elkartea
Informazio gehiago:
www.jardun.net
Epea: 2005-1-7

SMS BIDEZKO III. MAITASUN MEZUEN LEHIAKETA

urtarrilak 1-15

Antolatzailea: Jardun Elkartea
Pertsona bakoitzak ezingo du mezu bat baino gehiago bidali
Mezuaren ostean telefono mugikorraren zenbakia eta adina jarri beharko da
Mezuak jasotzeko epea mugatua izango da; urtariletik 1etik 15era
Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz izan beharko dute
Mezuak 605712469 telefonora edo
kulturajardun@topagunea.com
posta elektronikora bidali beharko dira
Irakurle Gazteek emango duten saria izango da: 90 euro

GASTEZKO IRAKURLE KLUBA

urtarrilak 27, osteguna

Pedro Alberdi, Satorrak baino lurperago,
Alberdania 2000
Hikaatenoa (Pintore kalea, 13),
20:00etan
Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:

J.M. Coetzee, Lotsaizuna, Elkar 2004.

Otsailaren 24an, osteguna

GEUREKIN MENDIRA

urtarrilaren 16an

SAIBI (946 m), ERRIALTABASO (1018 m)
(*arratsaldean itzultzekoa)
Arduraduna: Joseba-945200973
Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan



GEUREKIN MENDIRA

GAZTETALDEAREN V. IRTEERA

urtarrilak 30

TOLOGORRI

(goizeko irteera)

Irteera: goizeko 8:30ean Lovaina plazan.
KOTXEZ

Informazioa: 945222153 (GEU elkarte)
- Josune)

KULTUR ERROTA

urtarrilak 18

TXIRENE ANTZERKI TALDEA

"Nora hoa neska?" antzezlan
20.30ean, PARRAL tabernan

hikaateneo

"AFRIKA, BESTELAKO BEGIRADA ETA
AHOTSAK JARDUNALDIK"
(urtariletik ekaina bitartera)

urtarrilean

Hitzaldia: "Afrika: garapenaz harantzago,
zer?"

Tailerra: Bertako garapen ereduak Afrikan
Nola sortzen den garapena afrikar
aniztasunean. Afrika, gure ikuspegi
ekonomikoetatik begiratuta atzeratua iruditua
ahal zaigu, baina beste gauza batzuei
errepertatuz gero oso garatua.

Hizlaria: Rafael Crespo. Antropologoa.
Ikerketa lanak egin ditu Tanzanian, Kenian,
Seengalen eta Gambian.

Hikaateno-n (Pintore kalea 13-behekoa).
945288192 / gasteiz@hikaateneo.org)

gauekoak www.gauekoak.com

NEGUA 2005

urtarrilak 14

Neguko egitarauaren inaugurazioa
22:30ean. XI. Ipuin Laburren lehiaketaren sari banaketa, Edu Zelaieta
eta Jesus Miguel Etayo erreztaldiaz lagunduta

Izenemate bidezko ikastaroak

urtarrilaren 21etik aurrera

PANDEROA (euskaraz)

Otsailak 18, 25 eta martxoak 4, 11 4,81.- euro

Beste (gaztelaraz): piragua eta eskimotaia, afrikako dantzak, sabel
dantza, capoeira, sevillanak, bolo-jokoa, sortu eta pertsonalizatu zure
arropa, tarota eta miniaturen pintura (warhammer)

GAU TBko PROTAGONISTA IZAN NAHI AL DUZU?

erreportari ausarta, kamera... edo gehiago izan zaitezke
lantegi ireki eta dohainekoa
otsailak 4, 11, 18 eta 25
martxoak 4, 11 eta 18
ordua: 22 - 0
izenemateak Aldabe G.E.an

Aldabe Gizarte-Etxean, 22:00etatik 0:00etara

Izena Aldabe Gizarte-Etxean, jarduera hasi arteko epean, 8:30-
21:00ak artean. Plaza mugatuak..

Informazioa gehiago:

KULTURAMA elkarte: 945-141060 / gauekoak@gauekoak.com

SARLU

Zure arropa eta oinetakoak

www.sarludenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

IZARRA TABERNA

Agurrak, astrolabioak, ostalariak

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aitzogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

MIKO
Izozkiak

bar • restaurante
albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

EA
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org

GA
gaste
abertzaleak
www.gasteabertzaleak.com

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

HARPIDETZA
945 22 21 53

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fourier, 23
Tfnoa: 945 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 945 28 19 91
01004

Dalvez
argitarazleak

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa: 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinu.euskalnet.net

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Euskal toponimia Beloradoko (Burgos) eskualdean

Beloradoko barruti judizial zaharrean kokatutako inguruak eta Goi Errioxak artikulazio

historiko zaila dute, lurralde horiek Cluniako komentu juridiko erromatarrean txertatu zirenean hasiko zena, berez Ebroko bailaran kokatuta zeuden arren. Konstantino enperadoreak beranduago hasitako erreformak Tarrakoko barrutiaren jurisdikzioaren barnean txertatu zituen eta, X. mendean, Nafarroako monarkia berriaren kantzelaritzak bereak zirela aldarrikatzeko aitzakia izan zen hori. Izaera historiko dual hori hainbat esparrutan islatuko zen gero: esate baterako, Gaztelako lehenengo gotzain egoitza Okan (Villafranca Montes de Oca) kokatu zen eta Gaztelako erromantzearen eta Errioxako antzinako hizkuntzaren arteko antzekotasuna ere horren ondorio da; bestetik, inguru hartako Erdi Aroko kultura herrikoian Nafarroako eta beste euskal lurralde batzuetako aztarna ugari daude, eta XIII. mendearen amaiera arte gutxienez elebitasun egoera (euskararen eta gaztelaniaren artekoa) zuen.

Nafarroaren eta Gaztelaren arteko gatazka militar luzean, Ebroko sakonuneko ipar-mendebaldeko inguru hau kontrolatzeko egindakoan, bilatu behar dira Erdi Aroko botere ekonomikoa eskuratzeko arrazoiak batzuk –Beloradon Errioxaren eta Burgosen arteko merkataritza-trafikoa kontrolatzen zuen aduana bat sortu zen– eta udal arautegietan ere ikus zitekeen mugako nortasunaren berrespena: 1470. urtean oraindik Beloradoko bizilagunek mezulariak bidali behar izaten zituzten Nafarroako mugara beren lurraldea babesteko eta defendatzeko. Gaur egun oraindik, Castildelgado –Gaztela– herriaren landa-ordainketa baten izenak, Alfonsito VIII.aren erregealdian, bi erresuma horien arteko mugak bertako errekararen, hots, Roblillos errekararen urek zehazten zituztela gogoratzen du.

Beloradoko eskualdea bi erresumen artean ibili zen 1167. urtean, Nafarroako Antxo VI.a Jakitunak eta Gaztelako Alfonsito VIII.ak liskarren errudun ziren lurretan Enrike II.a Plantagenet Ingalaterrako erregearen arbitrajea onartzea erabaki zuten arte. Lurralde hori Gaztelaren barnean gelditu

zen behin betiko, baina esan beharra dago Nafarroako negoziatzaileek aurkeztutako

alegazioetako batek Belorado, Foratuko herriak zaharra, berariaz eta puntualki eskatzen zuela; beranduago Nafarroako ordezkariak baten egoitza bihurtu zen.

Batzuetan euskal hitzak ageri dira mugarriak eta bestelako mugak, hala nola iturriak –id est de illo fonte qui vocatur Lamiturri...–, edo ermita bat –ubi iungit se cum supradicta viam super S. Johannem de Zavalla– izendatzeko. Lehenengo aztarna toponimikoei dagokienez, alde batetik, gehienek indarrean jarraitzen dutela eta, bestetik, Donejakue bidearen eta Demandako mendizerrako gailurren lerroaren arteko gune menditsuan biltzen direla esan behar da.

Donejakue bidetik oso hurbil, San Miguel de Pedrosan, Beloradoko auzo batean, gertatu zen hain zuzen ere 759. urtean Nonna Bella eta beste hogeita zazpi lekaime elkartearen bizitzeko hitzarmenaren ofizializazioa. Antroponimo nahikoa ditugu lagin hori garai hartako gizartearen balio estatistikotzat hartzeko. Argumentu onomastiko batek balio historiografikoa baldin badu, datu horretatik ondoriozta dezakegu eskualde horretan, garai batean, kultur elementu hispaniarrek eta erromatarrek, germaniarrek eta euskaldunak zituen gizartea zegoela. Clarea, Susanna edo Gontrudaren ondoan euskal jatorriko izen hauek ditugu: **Amunna, Monnia, Eilo, Munnoza, Anderazo, Munnata, Mumadonna, Anderquina.**

Gizarte bateko hizkuntza baten erregistro onomastikoak biztanleriak hizkuntza hori erabiltzen zuela bermatzen ez duen arren, euskal adierazpen antroponimikoak ugariak dira, begiratu bestela 1007. urteko Donemiliaga Kululako kartularioa: “et de parte dallende est una terra de Munnata; et de sursum est terra de filios de Zidurra de Oka...”. Ideia horretan gehiago sakonduz gero, agiri emilianentseetako testuetan Eita eta Ama ugari ageri dira.

Erdi Aroan eskualde horrek zuen errealitate eleanitzaren beste datu bat ere badugu: Fernando III.a erregeak bista judizialean euskaraz hitz egiteko pribilegioa (1235) eman zien bertako biztanleei (Fazanya de Ojacastron).

© " Aritz Iriarte (Fontes Linguae Vasconum-en argitaratutako lanaren zati bat, 92-2003)

EL
BAR
Kutxi

eguneko menua

DIBUtec

Paper Beretzak
Arte Ederrak Materiala
Ink Jet original en birzikilatutak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint
Inprimatua / Inprimatua
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RioJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

arte txokoa

josune verez de mendizabal

argazkiak: edorta sanz eta betagarri

BETAGARRIren

GASTEIZTARREN GAKOA ZUZENeko KONTZERTUAK DIRA, ERITMO BETAZ ETA DIBERTIGARRIAK OSO. ONDORIOZ, ETA HAMAR URTEKO IBILBIDEA BETE BERRI DUELA BETAGARRI TALDEAK "ZUZENENA" IZENAREKIN CD ETA DVD BAT KALERATU DITU METAK ZIGILUPEAN. IZENBURUAK DIOEN BEZALA, BEREN IBILBIDE PROFESIONALEAN EGINIKO MAKETA BAT, BOST DISKO ETA 500 KONTZERTUETATIK BATZUK AUKERATU, ESANGURATSUENAK ALEGIA, ETA EUSKARRI EZBERDINETAN BILDU DITUZTE GAZTEEK, EUREN LAN BIZIENA DEN AZKEN HONETAN. CDA 17 KANTAK OSATZEN DUTE ETA DVDAK, ALDIZ, 22 ABESTIZ GAIN GIRONAN MAIATZEAN GRABATURIKO KONTZERTUA JASOTZEN DUEN IKUS-ENTZUNEZKO LANA DAKAR, BAITA HIRU BIDEOKLIP ERE.

IÑAKI ORTIZ
DE VILLABA,
taldeko ahotsa





"ZUZENENA"

-ZER-NOLAKO BALORAZIOA EGITEN DUZUE ZUEN HAMAR URTEKO IBILBIDE HONETAZ?

Gutziz positiboa. Urte emankorrak izan dira hauek eta dezente eta leku askotan jo dugu eta gainera merkatu berri bat zabaldu dugu Katalunian. Guretzat hamar urte hauek aurrerapauso handi bat izan dira. Izan ere, taldearen historian ez da izan ez bat-bateko igoera ezta jaitsiera ere, baizik eta pausoz pauso gauzaturiko bidea, beti aurrera begira.

-CD ETA DVD BAT KALERATU BERRI DUZUE OSPATZEKO. ZER AURKI DAITEKE BERTAN?

CD formatuan hamazazpi kantu bildu ditugu. Hamar urteotan egin ditugun bost diskoetatik esanguratsuenak edo. Abesti hauek aukeratzeko orduan jendeak gure web orrian izandako partehartzea ere kontuan hartu genuen. CDa Gironako La Mirona aretoan grabatua izan zen, baita DVDa ere. Azken ikus-entzunezko euskarri honek hiru atal nagusi ditu: batetik, zuzeneko emanaldi osoa hogeita hiru kantarekin, aretoan bertan; bestetik, taldearen dokumetal biografiko antzekoa, Valentziako talde batek eginiko grabazioa dena; eta azkenik hiru bideo: gure bideoklip bat; Japonian, Tokion, eginiko emanaldiarena; eta hirugarrena, Lisboan, Alderdi Komunistaren jaietan parte hartu genueneko irudiak.

-KATALUNIAN OSO ENTZULERIA FIDELA LORTU DUZUE AZKEN URTEOTAN, EZTA?

Hasieran jotzen hasi ginenean ez

gintuen inork ezagutzen eta hortaz, hogei lagun asko jota gerturatzen ziren gu ikustera. Pixkanaka egiten duzu entzuleria. Kataluniara aspaldian joan eta jakin genuen bertako jendeak gure mezua jasotzen zuela ia-ia Euskal Herrian bezain ongi. Harremanak lortu genituen bertako pertsona batekin eta dagoeneko badira lauzpabost bat urte handik hasi garela mugitzen. Fermin Muguruza eta Berri Txarrak-ekin batera egun euskal talderik ezagunenetarikoak gara Katalunian, besteak beste, ska musika oso zabaldua dagoelako bertan eta erritmo hau hitz aldarrikatzaileekin uztartzen dugulako; gainera zentzu abertzalea oso ondo ulertzen dute han.

-BIGARRENEZ, AURTEN IAZ BEZALA JAPONIAN IZAN ZARETE, ZER BERRI?

Oso ongi izan ginen bertan. Eskaini genuen lehendabiziko kontzertua eraikuntza bateko 5. pisuan izan zen, Japoniako hiru talde eta Alemaniako beste talde batekin batera. Aretora 1.000 lagun inguru igo ziren, imajinatu behar duzu denak igogailuz, musika-tresna eta guzti...

Gero Osakan eta Nagoyan izan ginen bestelako areto txikiagoetan. Bira hau oso positiboa izan da eta taldea gero eta ezagunagoa denez han, espero dugu bestelako jaialdietara ere datorren urtean edo bueltatzea. Bereizitasunen artean aipagarria da Japonian bete gurela gure 500 emanaldia.

di-da

-Eszenatoki bat:

Kawasaki Club Citta, jo dugun areto handiena da, 4.000



lagunentzako tokia dago eta.

-Emanaldi bat:

"Elkartasun Eguna" Bilboko Erakustazokan

-Kanta bat:

Jabe izan arte.

-Oroitzapen bat:

Ugari..., bat adibidez, La Mirona aretoarena, disko honen grabazioan, alegia.

-Egon zaren azken

kontzertua:

Japonian geundela beste batzuk ikusten izan ginen, baina horretaz gain mementoan ez dut bestelakorik gogoratzen...; normalean gu aritzen gara leku batetik bestera eta denbora askorik ez daukagu gainontzeko kontzertuetara gerturatzeko.



xabier errasti

Egunero. Beti eta uneoro zen. Arrantzaleen herri hartako biztanleek haizea lagun izaten zuten egunero. Las Negrasko haizea zen. Inoiz ez nuen haizea horrela hegan ikusi ordu arte. Jendea ez zen etxetik irteten. Herri mamua zirudien. Aspalditxo gertatutakoaren erruduna ere haizea izan zen. Las Negrasko bizilagunek, hantxe irauten zuten gutxiek, ez zuten horretaz hitz egin nahi, ez zuten haizeaz hitz egin nahi.

Kasualitatez iritsi nintzen. Autoa bidean matxuratuta gelditu zen. Cortijo Viejora joateko asmoa nuen. Galtzetako patrikan gordeta nuen iragarkiak zioenaren arabera, muino baten gainaldean ko-katuta zegoen eta itsasoa ikus zitekeen bertatik. Hilabete baino ez neraman herrialde hartan eta asmo bakar bat nuen: bakardadea bilatzen nuen, anonimatu.

Errepide hura inora ez zihoala zirudien, eta hori atsegin nuen. Alde bietan zuhaitzak zeuden, erritmikoki kokatuta. Eukalipto zaharrak ziren, azal zimur eta usain zaharminoak. Usain asko nahasten ziren, haizearena, erromeroarena, izpilikuarena, lehor usaina. Oinez abiatu nintzen, soilik errepidean pentsatuz. Zerua urdin-urdin zegoen eta, laino mehe urriek forma bitxiak, ulertezinak, sortzen zituzten.

Haizeak hostoen artean igarotzean egiten zuen zurrumurrak ekarri ninduen berriro nire pentsamenduetara. Orduantxe ikusi nuen zurezko kartela, apurtuta, errepidearen gainean erorita. Bide-zidor zuritik beherantz abiatu nintzen. Poliki-poliki, bihurtuz bihurtuz, nire

Haizea (II). Las Negras (Almeria)



oinak azkarrago zihoazen neurrian are handiagoa zen denbora gelditzen ari zela adierazten zidan sentipena. Kaioen kantua baino ez zen entzuten, aiene zahar baten moduan.

Kala txiki batean herri zuria agertu zen. Etxeak elkarren gainean zeuden, arnasa hartzeko tokirik gabe. Hondartzan itsasontziek abandonatuta zirudien, helmugarik gabe. Beltzez jantzitako emakume nekatu baten silueta ikus zitekeen itsasoraino zeraman maldan behera. Hantxe hiltzen zen lurra, kristalezko olatuak botatzen zituen mareak irentsita. Kresala begietan itsatsi zitzaidan; ezin izan nuen emaku-mearekin

hitz egin.

Urtarrileko haizeak olatu handi bat altxatu zuen eta ur zurrumbiloak zerurantz igoen ikusi nituen.

Korrika zebiltzan itsas-ertzean, arima beltzak harrien gainean lasterka, oin-hotsak entzuten ziren, oihartzunik gabeko uharriak. Haien desirak lurpean gelditu ziren.

Haize bitxi hark bultzatzen ninduen ezerezaren ezbaietara, nire buruan noraezean zihoan itsasontzia marrazten zuen, gizon bakartien urperatzea, metalezko izpiak hautsitako zerua.

Ez dakit haizeaz hitz egin behar dudan...

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA**

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Iluna, Arabako amatxia

Duela 2000 urteko Euskal Herria hagitz zabalagoa zen. Ardatza, gakoa Añamendia zen, hots, Pirinioak. Mendi erraldien bi aldeetan bizi baitzen Euskal Herria. Ekialderantz behatuz gero, erraiterako, egungo Kataluniako mendialdea euskalduna zen. Halaber, Aneto izeneko gailur altuenetik hurbil jaiotzen den Garona ibaiaren bideari jarraituko bagenio, euskara baztertu gabe Bordele hiri handiraino helduko ginatke. Bizkaiko Golko osoaren arrantzaleak euskaraz bizi baitziren. Mendi magaletatik Ebro ibairaino lanean jotake aritzen ziren laborariak bezala.

Garai hartako aztarna ugari heldu zaigu, idazkunak kasu, hau da, inskripzioak, latinez idatzirik. Horietako batzuetan izenak azaldu dira eta beraien artean euskara ez da salbuespena, ezta emakume euskaldunak ere, duela 2000 urteko euskal amaxiak, amineak, amamak, amonak. Bati "Andere" izena eman zioten. Alta, hau hagitz erabilia zen, zeren eta bertze zenbait idazkunetan "Andereni", "Anderes", "Andreseni", "Anderexo" bezalako izenak irakurtzen ahal baitira. Horrek erakusten diguna da mendeetan zehar euskarak bizirik iraun duela, egun izen bera erabiltzen dugulakotz "emakume" adierazteko. Ildo beretik, eta bertze era batera azaltzeko, mila urte beranduago Nafarroako Erresuman eraiki ziren lehen monastegietan ere izen hori topatzen ahal da, Leireko "Anderezu" lekuko, baita egungo Araban ere, doike.

Ikerlari batzuen erranetan, orduko euskarak norbait edota zerbait emakumezkoa zela adierazteko modu bat, bertzeak bertze, "ere" agertzea izaiten ahal zuen. Hortaz, aipatu berri dugun "andere" multzoa honen bidez azaltzen ahal dela dirudi. Hots: Andere. Baita "Ereseni" edo "Erhexoni" emakume izenak ere.

Zenbakiak edo koloreak ere izenak aukeratzeko orduan kontuan hartzen zirela emaiten du. Horrela, gure bertze amaxi bati "Belexeia" zioten. Antza denez, beltza kolorearekin harremanetan jartzen ahal dugu. Bertzalde, "Borsei" borts zenbakiari lotu behar zaio. "Laureia" eta "Laurinae" lau zenbakiari bezala. Hauek dira duela 2000 urteko gure bertze amaxi euskaldun batzuen izenak, bakoitzaren erranahia zehaztuko ez dugun arren: Bonnae, Bonnexis, Hahanten, Hautensoni, Nescato, Sentarri, Uri, Uriaxe.

Eta non ediren dituzte hemen aipatu ditugun euskal emakumezko izen hauek guziki? Egungo Iparraldetik iparralderantz, Akitania erdian, euskaldunon hiri handienak bertan baitziren eta hor, jakina, gure orduko amaxi gehienak. Ezin ditugu ahanzi, halere, euskararen lurraldetasunaz mintzatzen zaizkigun bertze testigantza batzuk, Arabako Langraitz herrian agertu zen garai hartako "Illuna" izeneko anderea horren adibide garbia baita.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO OSTALARITZA ESKOLA

Mertxika erreak

OSAGAIK:


- 24 mertxika erdi almibarretan.
- 200 g azukre.
- Kanela makila bat.
- Limoi azal bat.
- Litro bat esnegain.

Prestakuntza

⇒ Mertxika erdiak erre, azukrearekin, likorearekin, kanelarekin eta limoi azalarekin batera. Gutxi gorabehera 20 minutuz erre, bigundu arte, baina desegin gabe.

⇒ Behin erre ondoren, ontzitik atera eta, bota duen zukuarekin eta gainerako osagai usaintsuekin batera, ontzi batera bota, karamelatzen utzi eta esnegain likidoa gehitu. Loditu arte nahasi eta txanotik igaro. Zerbitzatzeko unera arte gorde.

⇒ Platerean jarri eta saltsa gainetik bota (epelak zerbitza daitezke), bainilazko izozki bola batekin edo gaztarekin batera.



Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldian plaza
GASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

GEUREKIN MENDIRA

URTARRILAREN 16AN

SAIBI (946 M), ERRIALTABASO (1018 M)

(* ARRATSALDEAN ITZULTZEKO)

ARDURADUNA: JOSEBA-945200973

IRTEERA: GOIZEKO 9:00ETAN LOVAINAN


GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN V. IRTEERA

URTARRILAREN 30EAN

TOLOGORRI

IRTEERA: GOIZEKO 8:30EAN LOVAINA PLAZAN. KOTXEZ

INFORMAZIOA: 945222153 (GEU ELKARTEA - JOSUNE)



KULTUR ERROTA

URTARRILAK 18 (asteartea) 20.30ean, PARRALEN
TXIRENE ANTZERKI TALDEA: "Nora hoa neska?" antzezlan

GEU ELKARTEAREKIN KULTUR ERROTAN

KULTUR ERROTAREN GURPILAK AUERRERA DARRAI URTE BERRIAN ERE. HORTAZ, BOSGARREN URTEZ JARRAIAN GEU ELKARTEAK HILABETEAN BEHIN PARRAL TABERNAN ANTZEZLAN, IPUIN, POESIA EMANALDI, KONTZERTU EDO DANTZA IKUSKIZUN BAT ESKAINIKO DIZU. ORAINGOAN TXIRENE ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK HILAREN 18AN "NORA HOA NESKA?" LANA IZANGO DA IKUSGAI.

"Nora hoa neska?" bakarriketa modura antolatuta dago nahiz eta bi emakume diren antzezlan burutzen dutenak. Hiru zatitan banatuta, zati bakoitzean, sinopsian agertzen den emakumearen hiru egoera desberdin adierazten dira. Lehenengo sustoa, ondorioz sortzen zaion noraeza eta azkenik erreakzio mundiala. Zenbait emakumeren egoera drama bat den arren, lan honek, irribarrea eta askotan algara ere sortzen du, izan ere, arazoaren tragikotasuna, komedia mundura ekarri nahi izan du Txirene Antzerki Taldeak. Komedia honek, umorearen bidez, egungo emakume askoren egoera adierazi nahi du. Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz ibiliko dira antzezle Lierni Fresnedoren zuzendaritzapean gauzaturiko antzerki lan honetan.

Pepa, senarrak utzi egin du hogeituroko loturaren ondoren. Artean sinestu ezinik, bere bizitza zertan geratu den kontatuko digu. Senarraren gustua egitearren utzi zuen bere lana, eta orain iraganera begiratzuz ohartzen da noraino iritsiko zen aktorea lanetan jarraitu izan balu. Baina...

Dena galduta dagoela dirudienean, bizi-pozet eta ilusioz gainezka dagoen Pepa berpiztuko da eta galdutako denboraren bila hasiko da jo eta su.

Fikzio ttipi honek balio beza denek barnean duten Pepa hori bila dezaten akuilu gisa!



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

URTARRILAK 27, osteguna
Pedro Alberdi, Satorrak baino lurperago,
Alberdania 2000

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13), 20:00etan
Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango
den liburua: J. M. Coetzee,
Lotsaizuna, Elkar 2004
Otsailaren 24an, osteguna

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena
eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 /
geugaste@grn.es

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu,
abisua eman.

- Ordutegi guztiak:

Leire. 656726701 // Nerea. 658733934


- Gaez:

Nerea. 658733934

- Asteburuak:

Nagore. 945281124

Iñaki Perurenaren solasaldia



GEU aldizkariak eta elkarteak pasa den abenduaren 14an eman zioten amaiera 2004ko hitzaldi multimedien sortari, Iñaki Perurenaren "50 altxaldi, 50 galdera" izenburupeko solasaldiaz. Izenburuak adierazi legez, bertaratutakoek galderak egin ahala Perurenak 100 kiloko harria altxatzeari eta ondoren galdera bakoitza erantzuteari ekin zion, harria, bera eta ikusle-entzuleen arteko zubia izaki. Denetiko galderak egin zitzaizkion, baina gehienak Euskal

Herriaren historia, euskal kultura eta harri-jasotzeari buruzkoak izan ziren.

Perurenak gai horien inguruan duen ikuspegia gertutik ezagutzeko tarteak izan zen, bai eta bera apur bat gehiago ezagutzeko tarteak ere. Euskal Herriaren iragana eta oraina, nola hasi zen harriak jasotzen, erabili ohi dituen harriak nongoak diren, herri kirola gaur, telebista aurkezle eta Goenkale teleaileko aktore gisa izandako esperientzia, bera markatu duten liburuak, nabar hitzaren esanahi zabala (kontzeptua, izendatzea, lurraldea, izaera...) eta nabar hitza daramaten Euskal Herriko toponimoen adibideak (Nabarniz, Nafarrate, Navarrete, Nabarte, Nabarrens...), euskal okela markak Nafarroako okela bere baitan hartzen ez duela, besteak beste.

Ordubete luzez aritu zen Iñaki Perurena bertaratutakoek galderei erantzuten. Hasieran galdera gutxi egongo zirela ematen bazuen ere, minutuak aurrera joan ahala ikusle-entzuleak, horien artean lka euskaltegiko ikasleak, hizketaldian parte hartzera animatu ziren, giro atsegina sortu zelarik.

Orrialde honetatik eskerrak eman nahi dizkizuegu 2004 urtean zehar hitzaldi programa honetan parte hartu duzuenoi.



GEUtik

balorazio positiboa egiten dugu hitzaldi guztietara lagun nahikotxo hurbildu zaretelako eta hori da azken finean helburuetako bat, Gasteizen dagoen euskarazko ekitaldien eskasia hori kalitatezko kultur ekimenen bitartez betetzen saiatzea. Horretan datza GEU elkartearen jarduera, baina aldizkaria ere, bere ahalbideen arabera urtero kultur arloko zerbait eskaintzen saiatuko da, azken urteotan egin duen legez (hitzaldi, kontzertu, poesia errezitaldi, diaporamaren bat, etab...), Gasteizen euskarari bizitasun eta indar handiagoa eman diezaigun.



urte batetik...

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA,
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA




Zuek gauza gutxi dakizue
handiak zaretelako,
txikiak zaretenean ikasiko duzue.

(Uxue, 4urte)



Zatoz ezagutzera!

Portal de Castilla, 101
01007 GASTEIZ
Tel. 945 14 54 45
armentia@ikastola.net
Fax. 945 13 96 21



EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN

Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarriarik behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM
KOLDO MITXELENA
INSTITUTUA

DBH / ESO
Behenafarroa z/g Tlf. 945 26 22 33

www.koldomitxelena.net

555 harpidetza kanpaina



HAR EZAZU EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

ARABA OSOKO EUSKARA HUTSEZKO

HILABETEKARI BAKARRA.

ZAINDU DEZAGUN, BADA!

>GEU

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

18 EURO

URTE OSOAN

945 222 153

geugaste@grn.es

IZAN ZAITEZ
GEU ALDIZKARIKO
HARPIDEDUN!!

Bidal ezazu
Pedro Asua kalea, 2. -3.a
01008 GASTEIZ
helbidera

izena

abizenak

helbidea

telefonoa